



**BADATOR
ERAIKUNTZA
GEHIGARRIA**

PARTE HARTZEKO:
948 564 275 | publi@guaixe.eus

*Publizitatea kontratatatzeko azken eguna Martxoaren 20a



Kintoen lau buruzagiak izan ziren lehenengoak opilak jasotzen, alkateak ardura makila eman ondoren.

Kintada egunak Burundan


Bakaiku eta Ziordia arteko aurtengo kidekoak, adin berekoak edo aurten 18 urte betetzen dituztenak, euren ospakizunak dituzte egun hauetan. Larunbatarekin, gainera, kideko zaharragoak batuko dira kinto ospakizunetara



Lehenengo zortzikoak.




Goiz goizetik dirua eskatzen aritu ziren. 21.000 euro inguru lortu dituzte.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



25. urteurreneko kintoak.



Opilak jaso ondoren jota eta porrusalda dantzatu zituzten. ARGAZKJABEAXXX



Zortzikoak.



40. urteurreneko kintoak.



50. urteurreneko kintoak.



Ospakizunak hasi zirela iragartzeko suziria.

3 kintoren, 3 kinto zaharren eta 2 kinto gazteren festa Bakaikun

Ostiralean eta larunbatean kintoen festan ibiliko dira 8 gazte bakaikuar



BAKAIKU

Aurten hiru kinto daude Bakaikun: Iñaki Cerezo, Xanti Lopez de Zubiria eta Iratxe Urrestarazu. “Baina gurekin batera hiru kinto zaharrek eta 2 kinto gazteak ospatuko dituzte Bakaikuko kintoen festa” adierazi digu asteburuko ospakizunak heltzeko gogotsu dagoen Iratxe Urrestarazuk.

Ostiralean elkartuko da kintoen-segizioa. Koxko tabernan afalduko dute, eta gero Iturmendira, Altsasura edo Olaztira joango dira parranda egitera, oraindik ez dute adostu. “Egunean erabakiko dugu nora joan. Dena den, garaiz erretiratu beharko dugu, larunbatean goiz-goizetik hasiko

baikara eskean” gaineratu du Urrestarazuk.

Larunbatean goizeko 9:00ak aldera hasiko dira eskean, Etxarriko bi trikitilariaren laguntzarekin. Saski batean ardoa, gazta eta txorizoa emango dute kintoek, herritarrei eskaintzeko, trukean jaso duten diru borondatea eskertzeko. Herriari buelta guztia eman eta gero, bildutako dirua zenbatuko dute elkartean, eta, ondoren, autobusean igo eta Ordiziara joko dute, sagardotegian bazkaltzera. “Arratsaldean Ordizian poteatu ondoren, autobusera igo eta Altsasuraino joango gara. Han afalduko dugu eta parranda egiteko asmoa dugu, ziurrenik ordu txikitarraino luzatuko dena” aitortu digu Urrestarazuk.

Eta horrela despedituko da Bakaikuko kintoen ospakizuna. “Lehen, igandean ere festa egiten zen, baina badira urte batzuk jada igandean festarik ez dagoela” kontatu digu Urrestarazuk. Kinto ospakizunetan ez dute zortzikoa dantzatzeko, bai ordea Santioko festetan.

Kinto-eskea eginen dute bihar kinto Iturmendiarrek

11:00ak aldera aterako da 25 gaztez osatutako kinto-segizioa herrian zehar

ITURMENDI

Haimar Agirre, Markel Diez de Arizaleta, Irune Goikoetxea eta Karla Goikoetxea dira aurtengo Iturmendiko kintoak. Haiekin batera segizioa kinto zaharrek eta kinto gazteek osatzen dute, guztira 25 gazte. Atzo guztiak afaltzeko elkartu ziren eta ondoren Altsasura joan ziren. Gaur, berriz, kinto afaria besterik ez dute eginen, elkartean. Zeren bihar egun handia dute kinto iturmendiarrek: etxez etxe parrandarako diru eskean ibiliko dira. Jasotakoa saski batean gordeko dute eta harekin pagatuko dituzte bazkari-afariak, koheteak eta beste. Nondik ibiliko diren argi jakinena da bonboa, trikitixa eta panderoa joko baitituzte. Kintoekin eskuzabal direnei jateko pastak eta edateko moskate-la eskainiko diete. Baserritarrez jantzita ibiliko dira egun guztian.

Etxez etxeko erronda despeditu ondoren, bazkaltzera elkartuko dira. Girota daukela Altsasura joanen dira, han afaldu eta parrandarekin ordu txikiak arte segitzeko. Domeka kinto iturmendiar batzuk



atseden hartzeko ibiltzen dute, besteak, berriz, gaztetxean elkartuko dira ospakizunaren nolabaiteko errepasoa egiteko.

Iturmendiko urteko kirekoak aurretik ere aritu dira eskean herrian barna, kantu-eskean zehazki. Urte Zahar gauean izan zen, Ur goiena kantua abestera atera zirena. Atera zuten diru kopuruarekin pozik daude kintoak. Horretaz aparte, kintoek badute beste zeregin bat: maiatzaren 1ean herriko plazan zutitzen den arbola, maiatza, beheko basotik herrira ekarri beharko dute.

Kinto asteburua hemen da eta gazteak prest dira zortzikorako

Aurten sei gazte dira kintoak. Larunbatean adin guztietako urdiaindarrak batuko dira festara

URDIAIN

Urdiaingo kintoak frontoian elkartu dira ostiralero ilbeltzaren 10etik. Javier Zelaiaren esanetara zortzikoa ikasten aritu dira. Eta haiekin batera, kinto gazteak ere aritu dira, heldu den urterako aurreneko dantza-ikastaroa jasotzen. Ordu beteko azken dantza saioa atzo izan zuten eyta hartan soilik kintoek dantzatu zuten. Gertu dagoen elkartean afari legea egiteko aukera ez zuten baztertu haiekin hitz egin genuenean. Sei dira aurten kintoak Urdiainen: Inhar Etxeberria, Daniel Arguelles, Patxi Arakama, Udane Aristizabal, Jone Apaolaza eta Irati Irigoien. Haiekin batera aipatu kinto gazteak eta kinto zaharrek ariko dira, 20 bat gazte guztira.

Ospakizunei dagokienez, baserritarrez jantzitako kinto-segizioa bazkaltzera elkartuko da gaur. Tripa bete, ondoren trikitilariak lagun, herrian barna arkume baten zozketarako txartelak salduko dituzte. Egitekoak despedituta elkarrekin afaldu eta frontoi azpiko egoiztan, “antroan”, parranda eginen dute gazteek. Hala ere,

larunbat eguerdirako kalean izanen dira, poteoan, kintada eguna baita Urdiainen. Duela 25 urte kinto izandakoek plazan zortzikoa dantzatuko dute 11:30 aldera. Bazkaldu ondoren, arratsaldean, errotara eta Sarabeko baserrira joanen dira, bertakoan aurrean dantzatu eta dirua eskaltzera. Handik bueltan afaldu eta ordu txikiak arte izanen dira kintoak parrandan.

Hala ere, domekan fresko izan beharko dute eta horretan Aitziber elkartean egindako gosariak lagunduko die. Handik plazara joanen dira, 12:00ak aldera, zortzikoa dantzatuko baitute. Kintoak dantzatzeko duten bitartean segizioko kideak diru-eskea egiteko aukera baliatuko dute. Dantzaldiaren ondoren arkumea zozketatuko dute. Plaza utzita herriren goiko partean barnako kinto-eskean segituko dute gazteek. Eta eginkizun berarekin segituko dute beheko partean bazkaldu ondoren. Ibilbidea despeditu eta gero, afaltzera gelditu nahi duenak horretarako aukera izanen du, kinto ospakizunetako azken parranda egiteko.



Kintoen asteburu betea izanen da Ziordian

Ostiraletik igandera bitartean kinto ospakizunetan murgilduko dira 11 gazte ziordiar

ZIORDIA

Aimar Garcia, Aitana Mendoza, Aiala Casas eta Endika Saez dira Ziordiko aurtengo kintoak. Baina haiei urte bat gehiago eta urte bat gutxiago dituzten kintoak gehituta, azkenean 11 gazte ospatuko dituzte aurten Santa Ageda edo kinto ospakizunak Ziordian.

Ostiralean kinto-segizioa bazkaltzera bilduko da Errekakartea elkartean. Iluntzean Olaztira hurbilduko dira, bertako Santa Ageda ospakizunekin, tartean Kaotiko taldearen kontzertua, bat egitera. Baina hurrengo egunean goiz altxa behar-

ko dute, eguerdi aldera hasiko baitira etxez etxe borondatea eskean. Lanbide horretan goiz guztia emango dute, eta gero Ziordiko elkartean bazkalduko dute. Bazkariarekin eta arratsaldeko poteoarekin girotu eta gero, iluntzean Altsasura joko dute. Santa Ageda ospakizunetan murgilduta egonen den Altsasun afaldu eta ordu txikiak arte parranda egiteko asmoa dute gazte ziordiarrek.

Igandean Ziordiko tabernan bazkaria izanen dute kintoek, eta horrela despedituko dituzte aurtengo Santa Ageda ospakizunak.



Olatzagutiko aurtengo 14 kintoak. UTZITAKOA

Festako protagonistak

Herengun hasi zituzten kinto ospakizunak Olatzagutiko 14 gaztek. Domeka bitartean haiek izanen dira kinto ospakizuneko protagonistak. Baina ez bakarrak. Atzo festara beti-kintoak elkartu ziren, eta bihar kintada eguna dute herriko hainbat kidek




Gazte olaztiarrak edertutako lau opil banatu zituzten.



Kintoek apaizari, medikuari, gazteenari eta adindunenari opil bana banatu zieten asteazkenean.



Egunero indarberriturik ateratzen dira euren festa ospatzera; domekara arte.



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa

Euskara ez ezik, beste hizkuntza batzuen bizirautea ikertu duten soziolinguistek bat etorri dira euskara bizirik mantentzearen faktore erabakigarrietako belaunaldiz belaunaldiko familia transmisioa izan dela esatean. Etxe-giro euskalduna izatea bermea eta, aldi berean, transmisiorako baldintza da. Jakina, beti ez ditugu baldintza horiek ziurtatuak, horretarako etxe-giroa osatzen duten kideek (guztiek ez bada, gehienek) euskaldunak izan behar dutelako eta erabiltzeko nahia ere izan behar dutelako. Sakanan, egoera soziolinguistikoa kontuan hartzen badugu, tipologia desberdinetako herriak ditugu: oso euskaldunak, euskaldun kopuru altu samarrekoak eta erdaldun samarrak ere bai; hala ere, guztietan gazte jendea gehien partean euskalduna dugu.

Etxe-giroan eta gertuko komunitatean eragiteko ahalmena konplikatu da, eremu intimoan mugitzen garelako eta etxe-giroak eta lagunartek askotarikoak ditugulako. Gazte jendea horren jakinaren gainean egotea gure ardura ere bada, eta horixe da nire asmoa oraingoan: heldu den belaunaldiaren euskararen transmisioa beraien eskuetan egonen dela esatea, alegia, gutxi gorabehera 18-30 urte bitarteko belaunaldiari egokituko zaio sortuko dituzten etxe- eta auzo- giroak euskaldunak izatea (baldintzak

HELDU DEN BELAUNALDIAREN EUSKARAREN TRANSMISIOA BERAIEEN ESKUETAN DAGO

izan badituzte horretarako, ñabardurak ñabardura), hau da, haien arteko harremanak euskaraz izatea, euskaraz jolasean ibiltzea, euskaraz adarra jotzea, euskaraz maitatzea eta ligatzea, euskaraz haserretzea... Horrek guztiak hizkuntza atxikimenduan eta, hedaduraz, kultur atxikimenduan eta hizkuntzan duten adierazkortasunean aurreratzea eskatuko die.

Ez da nire asmoa zer egin behar duten esatea, baina bai dakiguna transmititzea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Ipuinak

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Joan zaizkigu Eguberriak. Familia gehienetan asko izaten dira elkarrekin igarotako uneak. Izandako esperientzien arabera, data berezi hauek pasata, une polit, intimo edo aldrebesak gogoratzen edo ahazten saiatuko gara, egunerokotasunean murgiltzen garen bitartean.

Irurtzun Eskualdeko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateko langileok, egunerokotasun horretan une xamur, intimo eta gozoak sorrarazteko baliabide txiki eta indartsu bat zuenganatzea dugu gaur helburu: ipuinak, alegia. Ipuin bakoitza,

kontatzen duenaz gain, gure pertsona maiteekin elkartzeko eta gerturatzeko erreminta da.

Ipuinak kontatzaile eta entzulearen arteko lotura magikoa sortzen du. Denbora eta espaziotik babesten gaituen burbuila da. Intimitatearen maximoa. Okerrena, gehienetan ez diogula altxor honi eskaintzen duen etekin guztia ateratzen. Azkar eta kontzientzia faltaz, garai honetako gaixotasun dugun presaz kutsatzen baikara.

Ekiozue lasai, mimoz eta patxadaz. Zaintzazue argia, soinua, postura, gertutasuna, egokitu ahotsa eta hitzak dastatzeko aukera emaiozue zeuen buruari. Uztazue presa urrun, mesedez. Eta erabili ipuinak eskainitako istorioa eta marrazkiak kontatzaile eta

entzulearen arteko loturari arreta osoa hartzeko.

Ipuinak erabiliz gure etxeko txikiekin gai garrantzatsutsuak jorrazteko aukera dugu. Mintzagai anitzak aurkitu ditzakegu literaturan. Guk lau gomendatuko dizkizuegu. Gehienak liburutegietan erraz aurkituko ditugu eta lauak Youtube plataforman ikus daitezke.

Emozio ezberdinez aritzeko: "El monstruo de colores", Ana Llenas. Gaitasun desberdinak dituzten pertsonen buruz aritzeko: "El caso de Lorenzo", Isabelle Carrier. Autoestimuz jarduteko: "Casi", Peter H. Reynolds. Ezberdintasunak, aurreiritziak eta elkartasuna lantzeko: "Por cuatro esquinitas de nada", Jerome Ruillier.

Goza ezazuela.

GUTUNA

Ikastola, D eredia baino gehiago

ENEIDA CARREÑO MUNDIÑANO

Alabak euskal herritar aktiboak izatea helburu, ikastolarako hautua egin genuen. Oinez, gure eskuei helduta zihoazela hautua egin eta orain hegan, bakarririk egingo dute bere bidea ikastola utzita, baina ez bertan bizitakoa ahaztuta.

Ikastola, euskaraz ikastea baino gehiago da. Familien pausaleku bat da, bigarren etxe bat da. Ikastolan etorkizunerako erronkak aurkituko ditugu, familien parte hartze aktiboa (kooperatibismoa) sustatzen duena, Euskal Herria eraikitzen norbanakoak bere alea jarriz, elkarrekin ikastolen mugimendua osatuz, elkarri lagunduz.

Ikastolek hezkuntzan pisu handia dute, euskalgintzan eta herrigintzan eta bereziki izaera kooperatiboan.

Kooperatibismoa ez da formatu juridiko bat, mugimendu bat baino. Ikastolena, estatu eta merkatu logiketatik ihes egiten duen mugimendua da. Erabaki publikoetan eragitea du helburu ikastolen mugimendua.

Ikastolak izaera sozial nabarmena duten ikastetxeak dira, irabazi asmorik gabeak, demokratikoki kudeatuta, gardenak, ideologikoki anitzak eta laikoak. Ikastolak, administrazioak baimenduta eta ikuskatuta diren zentroak dira, zentzu horretan administrazioaren kontrolpean daudenak. Ikastolak, publiko herritarrak dira, AEK edo Sakanan Guaixe komunikabidea den moduan, besteak beste.

Ikastolak euskal lurraldeari atxikituriko espazioak dira. Ikastolak euskararen hutsunea zegoen espazioetan sortu ziren. Gure lurraldeen beharra euskaratik harago doa. Izaera komunitarioaren garapena eta komunitarioaren indartzea dute oinarri ikastolek.

Ikastolek tokiko ekonomian eragin handia dute, jangelak, IKT, aisialdi zerbitzuak, Ikastolen festak, ikas material propioa... eta kulturaren eta euskalgintzan zer esanik ez, ahal den ekimen guztietan parte hartuz, eraginez eta horren adibide estreinatu berri den Lur eta Amets pelikula kasu.

Ikastolek euskal identitatea, euskal komunitatea garatzea izan dute helburu eta gaur egun herrien funtsa bilakatu dira, horretan dihardugu. Bazatoz?

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

María Luisa Zelaia

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Zorion, etxe hontako denoi!



IRURTZUN - UTZITAKOA



IRAÑETA - UTZITAKOA



LAKUNTZA - UTZITAKOA



LIZARRAGA - UTZITAKOA



ETXARRI ARANATZ - UTZITAKOA



ALTSASU

GOIZERO 10:00-12:00

EGUN ON SAKANA

08:30 Nafarroako albisteak
Euskalerrria irratiaaren eskutik

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Bateti bestia

10:20 Eguneako albisteak

10:45 Hizketan

11:15 Sarea: Aralar eta
Karrape irratikoekin

11:55 Agurra

Kale Nagusia 10
(Etxarri Aranatz)
948 567 074
irratia@beleixe.eus

107.3 FM
beleixe

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS

C.A. OSASUNA
REAL MADRID

OTSAILAK 9, IGANDEA

16:00-18:00

(IRRATIKO KONEXIOA 15.40EAN)

EUSKALERRIA
IRRATIAREN BITARTEZ



Gurutze Gorriak emakume langabeei zuzendutako ikastaroaren akabera. ARTXIBOA

Gurutze Gorria "bueltan" da berriro ere

Egoera ahulean edo gizartean baztertzeko arriskuan dauden emakumezkoendako ikastaroa antolatu zuen 2019ko bigarren seihilekoan eta, horrekin, Gurutze Gorriak "itzulera" irudikatu nahi izan du

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU
Nafarroako Gurutze Gorriko lehendakariorde Mercedes Ruiz de Galarretak adierazi zigunez, Altsasuko tokiko batzarra herrialdeko historikoetako bat da. Abenduan egin zuten, atzera ere, Gurutze Gorria Altsasun "bueltan" dagoela adierazteko ere baliotza izan zuen. Ruiz de Galarretak azaldu digunez, Altsasuko toki-

ko batzarra duela 10 bat urte desagertu zen, "baina sekula ez gara Altsasutik joan. Han edo

"SEKULA EZ GARA ALTSASUTIK JOAN, GUTXIENKO JARDUERA BAT GENUEN"

hemen, txokoren bat uzten ziguten tokietan gutxieneko jardura bat genuen. Iruñetik kudeatutako zuzendaritza bat egon da. "Esaterako, horrela kudeatu dugu klinikarako egokitutako garraioa. Ikastaroak ere antolatu ditugu jubilatuen elkarteetan".

40 urte edo izanen dira Gurutze Gorria Altsasun ezarri zela. "Urrun zegoen eta inguru hone-

tan istripu ugari zeudenez sorospen-postua jarriz hasi ginen. Aste osoan egoten ginen anbulantzia zerbitzua eskaintzen. Sorospen edota prestakuntza ikastaroak eman ziren. Batzarrekoendako etxeko-arreta zerbitzua eskaintzen genuen". Ruiz de Galarretak gogorarazi digunez, arlo sozialean ere lan egiten zuten: "Josefina Arregi klinikarekin, etxean bakarrik zeudenekin..." Boluntarioekin batera, sorospen lanetan soldaduskara joan nahi ez zuten kontzientzia eragozleak sartu ziren 80. hamarkada bukaeran eta 90. hamarkadako hasieran. Gazteria eta prestakuntza arloak ere bazituen Altsasuko batzarrak.

Baina "zuzendaritza eraman nahi zuen jendeak kale egiten hasi zen. Objekzioa eta soldadutza desagertu ziren. Iruñeko boluntarioak etortzen hasi ginen, altsasuarrekin batera zerbitzuak betetzeko". Ruiz de Galarretak aipatu duenez, "berpizten hasi ginen. Altsasuko tokiko batzarreko delegatua Eduardo Cañamero da. Maria Betelu Arbizurekin bitartekaritza ikastaroak egiten hasi gara. Jarduerak egiten hasi gara eta, atzera ere, Altsasuko Gurutze Gorriaren tokiko batzarra zabaltzen ari gara. Etorrizunean Altsasun gizarte bitartekaritzarekin eta esku-hartzearekin segitu nahi dugu, gazteria landu eta anbulantzia teknikoak opatuz gero, sorospenekin hasi". Otsaileko datuen arabera, Altsasuko Gurutze Gorriak 356 bazkide eta 66 boluntario ditu.

Egitekoak

Gaur egun Gurutze Gorriak Altsasun honako proiektuak garatzen ditu: Josefina Arregi klini-

karendako egokitutako eta lagundutako garraioa, muturreko kalte egoerei aurre egiteko programa, genero indarkeria jasaten duten emakumeei zuzendutako asistentzia mugikorra, 45 urtetik gorako iraupen luzeko langabetuei zuzendutako programa, bazterketa arriskuan dauden eta Bermatutako Errenta jasotzen duten emakumeei zuzendutako ibilbide integralak, atzerritartasun alorreko harrera eta aholkularitza zerbitzua eta bakardade egoeran dauden pertonekin ikerketa-akzio proiektua.

Ruiz de Galarretak azaldu digunez, boluntarioak ongi etorriak dira Gurutze Gorrian. Lanerako honako aukerak proposatu ditu: egokitutako garraioa behar duten pertsonen arreta ematea, gaztelera klaseak ematea, nazionalitatea lortzeko beharrezkoa den azterketarako prestakuntza klaseak ematea, pertsona migratuei komunitatearen baliabideetara sarbidea erraztuko dien laguntza eta orientazioa ematea, informatika-alfabetatze klaseak ematea, sentsibilizazio eta difusio kanpainetan laguntza ematea eta administrazio lanetan laguntzea. Gurutze Gorrian boluntario izan nahi dutenek Altsasuko Zelai kaleko 59. zenbakian dagoen egoitzatik pasa, 678 509 578 edo 948 207260 (56581 estentsioa) hots egin edo maria.betelu@cruzroja.es edo irantzuescudero@cruzroja.es e-postetara idatz dezakete.

RUIZ DE GALARRETAZ AZALDU DIGUNEZ, BOLUNTARIOAK ONGI ETORRIAK DIRA GURUTZE GORRIAN



Reclaim the Fields-en topaketa Amaraunan

Elikadura burujabetza eta nekazaritza sustatzen duen Europa mailako nekazari eta landa eremuko sareak igandera arte Europa mailako topaketa egingo du Amaraunan. Larunbatean AHTren kontrako martxa eta kontzentrazioak deitu dituzte

ZIORDIA

Reclaim the Fields, bizi eredu alternatibo bezala elikadura burujabetza eta nekazaritza sustatzen duen Europa mailako nekazari eta landa eremuko sarea da. Eredu kapitalistari alternatiba ematea da bere xedea, ekimen kooperatibo, kolektibo edota autonomoen bitartez, euren beharretara bideratuak diren maila txikiko produkzioekin. Otsailaren 4tik 9ra Reclaim de Fields Europa mailako urteroko asanblada burutzen ari da Amarauna gune autogestionatuan, Ziordian. Eta topaketa horien barruan bihar, larunbata, otsailaren 8a, jendaurreko eguna izanen da. Hainbat ekimen daude antolatuta, Abiadura Handiko Trenaren kontra ekimena, tartean.

AHTren kontrako martxa eta kontzentrazioak Altsasun

Larunbatean, goizeko 9:30ean Ziordiko Amarauna gunetik Abiadura Handiko Trenaren



Joan den urteko AHTren aurkako martxa. ARTXIBOA

kontrako martxa abiatuko da, Altsasurantz. 12:00etan, Altsasuko tren geltokian kontzentrazioa egingo da, leihatilaren itxieraren aurka, eta 13:00etan Altsasuko udaletxe parean kontzentrazioa dago deituta, "AHTrik

ez, Sakana bizirik!" lelopean. Sakanako Trenaren Alde AHTrik EZ plataforma da martxaren eta kontzentrazioa deitzaileetako bat. "Ekimen hauetan Abiadura Handiko Trenaren obrak eta trenaren zerbitzuen itxierak sa-

latuko ditugu eta Sakanako tren bultzatu behar dela aldarrikatuko dugu" dio plataformak.

Altsasuko tren geltokiko leihatilaren itxiera salatuko da

"Trena desmantelatzeko bidean pausu bat harago joan dira, Estatuan 150 geltokitako leihatilak itxi baitituzte, horietako 3 Nafarroan, Altsasuko tartean" salatu du plataformak prentsa ohar bidez. Eta bitartean Abiadura Handiko Trenaren lanak Nafarroan aurrera doazela salatu dute. "Azken 2 urte hauetan Tafalla, Erriberri eta Villafranca AHTren 30 km-ko obrak jarri dituzte martxan, orain arte Nafarroan azpiegitura honi inoiz emandako bultzada bortitzena, batzuek begi onez ikusitakoa".

Halaber, AHTren eraikuntzarako bideratutako dirutzak "tren arruntaren mantenuan murrizketak" eta "zerbitzuak gutxitzea" ekarri duela deitoratu du Sakanako Trenaren Alde AHTrik EZ plataformak. "Agerikoa da AHTa eraikitzeak eta martxan jartzeak tren arruntaren desmantelazioa eta bertan behera uztea dakartzala, eta argi izan behar dugu hiri eta herrien arteko bidaiarien garraio zerbitzua eta merkantziak garraiatzeko aukera tren arruntak baino ez dituela bermatzen".

Horregatik guztiagatik, otsailaren 8an Ziordian hasi eta Altsasun despedituko den martxan parte hartzera eta Altsasuko tren geltokiko eta udaletxe aurreko

kontzentrazioetan parte hartzera deitu du plataformak.

Hazi banaketa, borroka ezberdinak eta festa

Ziordiko Amaraunan larunbatean egingo den bazkariaren ondoren, eskualde eta txoko ezberdinetako hazien trukaketa egingo dute Reclaim the Fields topaketetan parte hartuko dutenek, eta Euskal Herriko eta Europako nekazaritza eta elikadura burujabetza borroken aurkezpena egingen da. Topaketa afaria eta festatxoarekin despedituko da.

Larunbateko egitaraua

09:30 AHTren kontrako martxa, Ziordiko Amarauna gunetik Altsasura.

12:00 Altsasuko tren geltokian geldialdia, takilen itxierak salatuz.

13:00 AHTrik ez, Sakana bizirik! Kontzentrazioa, Altsasuko udaletxe parean.

15:00 Bazkaria.

16:00 Hazien trukaketa.

17:00 Euskal Herriko eta Europako nekazaritza eta elikadura burujabetza borroken aurkezpena.

20:00 Afaria.

21:00 Festa.

Sakanako 149 torturatuak gogoan

Ostegunean, 19:00etan, Altsasuko udaletxe parean kontzentrazioa egingen da Sakanako Sortuk deituta.

ETXARRI ARANATZ

Torturaren kontrako eguna da otsailaren 13a, egun horretan, 1981ean, torturen ondorioz Joxe Arregi hil zelako. Hori dela eta, Iluntasunetik argitasunera ekitaldia antolatu du Sakanako Sortuk heldu den ostegunerako. Ezker abertzaleak azaldu dutenez, "urteak dira Sakanako torturaren errealitatea iluntasunetik argitasunera pasatzeko pausoak egiten ari garela". Gaztigatu dutenez, ibarrean 1960 eta 2014 urteen artean izandako 149 tortura kasu egiazatu dituzte da-



Torturaren aurkako ekitaldi bat. ARTXIBOA

goeneko. "Tamalez, gehiago izanen dira. Zifrak gure herriak askatasunaren eta demokraziaren alde borrokatzeagatik jasan dako sufrimendua gordetzen du".

Sakanako Sortutik adierazi dutenez, "ezin ditugu ahaztu, eta doakie gure besarkadarik berona, torturapean jasotako testigantzen ondorioz gaur egun espainiar eta frantziar espetxetan dauden euskal preso politiko guztiei eta, bereziki, sakandarrei". Haiek kalean beharko luketela azpimarratu dute. Tortura pairatu dutenen "benetako erreparazioa eman dadin, tortura Estatutari espainiarrek erabili duen metodo sistematikoa izan dela aitortu beharra dago". Horregatik, aldarrikatu du "urte luzez modu kontzientean estali diren egoerak aitortzea, ez errepikatzea berma dadila".

DUELA 25 URTE... 1995-02-05



Bakaikuko kontsultategi berria

Udaletxean dagoen kontsultategia berritzeko Osasunbideak 5,5 milioi pezeta (33.055,67 euro) bideratu zituen. Itxaron-gela, medikuaren eta erizainaren gelak egin zituzten. Hiru komun eta biltoki bat ere berregin ziren. Udalak beste milioi bat pezeta (6.010,12 euro) jarri zituen. Bakaikuar ugari bertan zirela, otsailaren 5ean mustu zuten. Javier Azpiroz apezak bedeinkatu zuen lokala. Ondoren auzatea izan zen.

Oroigarria kenduta

Espainiako Auzitegi Nazionalak Axioaren, Pelloren eta Josuren, hildako hiru ETAko kide etxarriarren, oroimenezko oroigarria kentzeko agindu zion udalari. Urtarrilaren 27an kendu zuten herri mugimenduak jarritako oroigarria

ETXARRI ARANAZ

Etxarri Aranazko Udalak "auzitegiak inposatuta" eta "zabalik dauden bide juridikoez eragin ditzaketan ondorio penal larriak kontuan izanik", otsailaren 27an kendu zuen. Horretarako, propio enpresa bat kontratatu zuen. Aipatu oroigarria behoko basoan, Haritzen ibilbidearen hasieraren ondoan zegoen. Harrizko mahai baten itxura du eta hanketan Axio, Pello eta Josu izenak ageri dira, Juan Ignazio Erdozia Larraza, Pello Mariñelarena Imaz eta Josu Zabala Salegiri erreferentzia egiten dietenak. Haien gainean amnistiaren ikurra eta esaldi bat ageri ziren. Gudarien Txokoa herri mugimenduak jarri zuen oroigarria 2017an.

Antza, Guardia Civilaren Informazio Taldeak "hildako ETAko hiru etxarriarren figura goratzen zituzten omenaldiak dektatu" zituen. Oroigarria Danbolintxulon lokalizatu ondoren, oroigarriaren ezarpenari buruzko txostena egin eta Espainiako Auzitegi Nazionaleko 6. Instrukzio Epaitegira bidali zuen. Espainiako Gobernuaren Nafa-

rroan Ordezkaritzak udalari oroigarria jartzeko baimena eman ote zuen galdetu zion lastailean. Ezetz erantzun zuen udalak. Azaroan oroigarria kentzeko eskara iritsi zen. Epaitegiaren arabera oroigarria "terrorismoaren biktimei egindako irain gisa tipifikatua dagoen delitua" izan daiteke.

Etxarri Aranazko EH Bildu ez dator bat auzitegiaren iritzia-rekin: "gatazka politikoez sufrendu asko eragin dute gurean, eta Etxarriko Udalak aurreko legealdian landutako Sufrimenduaren Mapak argi eta garbi zehazten zuen sufrendu mota hori guztia, salbuespenik gabe". Koalizioetik gaineratu dutenez, "dolurako pertsona guztien eskubidea errespetatu behar dela uste dugu. Hildakoak gogoan izatea ezin da inori egindako irain gisa hartu. Zentzu horretan, bada garaia herri honetan biktima guztien memoria lantzeko pausoak emateko, zeinaren bidez herritar guztien sufrendua aintzat hartuko den; etorkizuneari arrazoi politikoengatik inork gehiago sufritu behar ez izateko".

Azkenik, EH Bilduk gogorazi du herri lurren erabilera arautzea herriari dagokiola. "Eztabaidagarria izan daiteke egokia den edo ez lur komunalean harrizko oroigarriak jartzea; baina eztabaida hori Etxarriko herritarrei dagokigu, eta ez Espainiako Gobernuari ezta Entzutegi Nazionalari ere".

AEM-K "MEMORIAREN ETA GUDARIEN AURKAKO ERASOTZAT" HARTU DU TXOKOAREN "SUNTSIPENA"

AEMren iritzia

Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Kontrako Mugimendutik (AEM) adierazi dutenez, "Gudarien Txokoaren suntsipena Euskal Herriko memoriaren eta gudarien aurkako erasotzat hartzen dugu, eta baita herri mugimenduaren lana eta jardueraren aurkakoa ere. Herri honetan gertatu dena eta gertatzen denaren kontakizun erreal baten alde lanean jarraitzeko konpromisoa" berretsi du. Espainiako Auzitegi Nazionalari "inolako zilegitasunik" ez diotela aitortzen gaineratu du, "okupatzaileek gure herria zigortzeko eraturako erakunde faxista delako eta, bestetik, zigortze hori aurrera eramanean duenean Gudarien Txokoak oroitzen zituen militanteen hiltzaileak babesteko eta beste hainbaten torturatzaleei inpunitatea emateko ezinbesteko elementua izan delako".

AEM-ko kideen iritziz, "epaitegi faxistak egindako mehatxuek ez dute justifikatzen bidegabekeria bat aurrera eramatea". Horregatik, ez dituzte onartzen EH Bilduk "Gudarien Txokoa deuseztatzeko eta monolitua lapurtzeko jartzen dituen aitzakiak". Gaineratu dutenez, "obediencia iraingarria" erakutsi da kasu horretan. AEMtik gogorarazi dutenez, "2016ko irailaren 3an, Etxarrin bertan, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak erakutsi zuela desobediencia egiten duen hautua benetakoa dela. Egun horretan preso politiko erien askatasunaren aldeko manifestazioa debekatu zigun Espainiako Gobernuak Nafarroan daukan Delegazioak, eta Guardia Zibilaren oldarraldi eta ke-poteen artean, manifestazioa berdindin egin genuen". AEMk



Oroigarria eraman zuten unea. UTZITAKOA

desobediencia aldarrikapena egin du.

Sortu

Oroigarria dela eta, Etxarri Aranazko Sortuko oharra zabaldu du eta oroigarria "inori ezer esan gabe" jarri zela azaldu du. Bestetik, oroigarria jarri zutenei "jartzearen ardurak bere ez egitea eta haren alde ez borrokatzea" leporatu die. Sortuko kideek uste baitute Espainiako Auzitegi Na-

zionalaren "aginduak ez bete-zearen ondorioak ez dituzte haiek jasango, udalak baizik. Horrela erraza da borrokatzea: nik esaten dizut zer egin behar den, baina egin ezazu zuk, nik ez baitut inolako erreprezio ondoriorik asumitu nahi". Eta gogorarazi du, batetik, Etxarri urtero gogoratzen direla gudariak eta, bestetik historia memoria berreskuratzeko lanean jarraitzen duela udalak.



"Berdintasun Plana egitera animatu!"

OIHANA GALLO SAN ROMAN MANK-EKO BERDINTASUN TEKNIKARIA

Sakanako emakumeak gonbidatuta daude asteleheneko parte hartze saiora. Eta hilaren 17kora sakandarrak eta guraso-, kirol-, kultur-, gazte- edo jubilatutako elkarteak

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak ibarreko I. Berdintasun Plana egiteko Errotik, Sakana parekidea parte-hartze prozesua mar txan jarri du. Saioak Mank-en Lakuntzako egoitzan izanen dira eta antolakuntza errazteko alde aurretik izena ematea eskertu dute (berdintasuna@sakanamank.eus e-posta helbidea).

Zer moduzkoa izan da aurreneko parte hartzeko saioko balorazioa?

Orokorrean, balorazio oso positiboa izan da. Aurreko asteetan komunikazio kanpainarekin batera eta bestera ibili gara eta, badirudi, oihartzuna izan duela.



I. Berdintasun Plana egiteko parte hartze saioak astelehenean hasi ziren. UTZITAKOIA

Astelehenean 19 alkate eta zinegotzi elkartu ziren saioan. Nahiko parekidea izan zen: bederatziz gizonetako eta hamar emakumetako. Herri gehienek parte hartu zuten, bai alkateak, bai zinegotzirentzat. Alde kuantitatibo eta kualitatibotik, oso pozik.

Zein metodologia erabiltzen duzu?

Saioen egiturak hiru zati ditu. Aurrenekoan, oinarritzko prestakuntza lantzen da, berdintasunari buruzko oinarritzko kontzeptuak lantzen dira. Berriki onartu den Nafarroako Berdintasunerako Legea aurkezten dugu. Horretaz aparte, aurretik landu den planaren egituraren berri ematen da. Atsedendialdiaren ondoren talde dinamika bat egiten da. Sakanako Berdintasunerako Planak lau arlo izanen dituenez, lau talde osatzen dira eta bakoitzean lau arloak landu zituzten. Ekarpentak jasotzeko saio guztien egitura bera mantenduko da. Baina saio bakoitzaren profileen sakontzen ari gara. Esaterako, alkate eta zinegotziekin, gehien landu genuen atala gobernantza eta zeharkakotasuna izan zen. Beste hiruak ere.

+guaixe.eus

Egutegia

Otsailak 7, ostirala

• **10:00-13:00** Udal teknikariak eta gizarte zerbitzuak.

Otsailak 10, astelehena

• **17:00-20:00** Emakumeak, mugimendu feminista eta emakume elkarteak*.

Otsailak 14, ostirala

• **10:00-13:00** Mank-eko langileak.

Otsailak 17, astelehena

• **17:00-20:00** Herritarak, elkarteak, guraso elkarteak...*

Otsailak 21, ostirala

10:00-13:00 Tokiko garapena.

* Saio horietan 3 urtetik gorako haurrendako zaintza zerbitzua izanen da; aurretik eskatu.

**2020ko
ihoteetako
lehiaketa**

Otsailaren 5etik
martxoaren 4ra

Sariak: Errigora kaxak
eta Guaixe25 kit-a

www.guaixe.eus



Proiektuaren sustatzaileak. Egitasmoak etxetik lanera eramaten den janaria osasungarria izateko tailerrak aurreikusten ditu ere.

Klinikan "erakunde osasungarria" proiektua

"Proiektu berritzailea da asistentzia-osasunaren sektorean, eta klinikan lan egiten duten pertsonen osasuna hobetzea du helburu. Klinikan eta haren inguruan osasunari buruzko kultura aldatzeko aukera emango du".

SAKANA

Josefina Arregi klinika etapa berri batean sartuta dago eta osasun-zentroaren zutabeetako bat da 2019-2022 aldirako plan estrategikoa, berriki onartu dena. Plan horretan jasota dauden artean daude langileen osasuna zaintzeko eta hobetzeko kudeaketa-politika estrategikoak aldatzea eta sartzeara. "Zaintzeko, zaindu beharra dago" ideiarri segituz, Josefina Arregi klinikan "zure osasuna, erakunde osasungarria" izeneko proiektua abiarazi dute, klinikako langileen osasuna hobetzea helburu duena.

Proiektu hori garatzeko, Josefina Arregi klinikak langileen osasunaren arloan lan egiten duten Mutua Navarra eta Gesinor enpresen laguntza izan dute. Plana diseinatu eta martxan jarri duen lantaldean bi langile egon dira ere.

Proiektuaren garapena

Proiektua diziplina anitzekoa da, 2019ko martxoan garatzen

hasi zena. Langileen osasun egoera ezagutzeko, banakako elkarriketak egin zizkieten langileei eta haien iritziak jasotzeko inkesta eman zieten. Baita langileei egiten zaizkien mediku-azterketako datuak eta langileen bajak hartzeko arrazoiak aztertu ere.

Horrek lau ondorio utzi zituen. Aurrena, klinikako plantillaren zati batek sedentarismo-maila handia zuela, eta jarduera fisikoaren maila hobetzeko beharra duela. Hobetu beharreko beste arlo bat bat elikadura-ohiturekin lotuta dago. Kolesterol-zifrak hobetzea ahalbidetuko duten ohitura aldatzeko sustatu beharra agerian gelditu zen. Horrela, istripu kardiobaskularren arriskua murriztu nahi dute. Bestalde, muskulu eskeletikoko goiko trena hobetzeko beharra erakutsi zuen, pazienteak maneiatzen dituzten pertsonen ohiko gaixotasuna baita. Azkenik, emozio-mailan estresa antzeman zen, zehazki errukiak eragindako nekea. Hori laguntza terapeuti-

koaren zuzeneko harremanaren, enpatiaren eta dementziari atxikitako buru-, jokabide- eta emozio-asaldura duten pazienteekiko konpromiso emozionalaren ondorioz sortzen da.

Proiektuak urteko ekintza-plan bat du, eta, bertan, funtsezko lau ardatz landuko dituzte: emozio-ongizatea, elikadura, ariketa fisikoa eta muskulu eskeletikoa berreskuratzea. "Ekintza-planak sentsibilizazio-saioen programa bat ere izanen du, osasuna zaintzearen eta ohitura osasungarriak mantentzearen garrantziaz ohartarazteko, pertsona bakoitzak bere ohiturak hobetzeko eta, azken batean, bere osasuna hobetzeko dituen gaitasunez jabetzeko". Funtsezko saioak, langi-

"BEHARRAK AZTERTU ONDOREN, EKINTZA PLANA EZARRI DUGU, EPE ERTAIN ETA LUZEAN GARATZEKO"

leek bizitza osasuntsua izatearen garrantzia barnera dezaten. Saioak martxoan zehar izanen dira.

Jarduerak

Emozio-ongizatearen arloan, otsaila eta apirila bitartean estresaren kudeaketari buruzko lau saio izanen dira. Asteartean hasi ziren saio horietan estresa zer den, zer motatakoa den, nola garatzen den, etapak, sintomak eta emozioak azaltzen dira. Saioek zati praktikoa izanen dute, bizitza pertsonalean aplikatu ahal izanen diren lau erlaxazio-teknikaren bidez. Gainera, nahi duten langileek estresaren kudeaketari buruzko bakarkako coaching saioak izanen ditu, hiru ordu guztira. Arlo horretako prestakuntzak urteko bigarren seihilekoan jarraituko du, Mindfulnessko hastapen ikastaro batekin. Estresa gutxitzeko bizitza eta terapia kognitiboari buruzko ikastaroa izanen da.

Errekuperazio muskulu eskeletikoaren esparruan, langileek tailer batzuk jasoko dituzte datozen hilabeteetan, ariketa fisikoa egitearen garrantziaz informatzeko eta sentsibilizatzeko, alderdi muskulu eskeletikoan langilearen egoera fisikoari buruzko prebentzio-neurri gisa. Uda pasata, lanpostuari aplikatutako errendimendu handiko entrenamendu-programa jarriko da abian, Witrein. Helburua giharretako arazo edo lesio eskeletikoak saihestea da, kutsu fisikoa prebenitzea, berreskuratzea eta indartzea ahalbidetzen duten ariketen bidez. Lanpostu bakoitzaren azterketa eta grabaketa batekin hasten da programa, ondoren banakako entrenamendu-plan bat aztertu eta garatzeko. Horren aurretik, langileei prestakuntza emanen zaie, planean proposatutako ariketa fisikoak behar bezala egin ditzaten, eta erabili beharreko kirol-materiala jasoko duen kit bat emanen zaie. Ariketa bidez indarra eta egoera fisikoa hobetzea da Witreinen helburua, eta horrek lesio muskulu-eskeletikoak saihestuko ditu, eta, ondorioz, osasunean eta ongizatean irabaziko da. Hori guztia aplikazio baten bidez egindena da. Hiru hilebetero neurketak egingen dituzte, mugikortasun arkuaren lortutako hobekuntzak eta indarra egiaztatzeko. +guaixe.eus



Proiektuko kideak. NAFARROAKO GOBERNUA

Urbasa-Andia klima-aldaketari buruzko proiektu batean

Klima-aldaketaren aurrean babestutako guneen kalteberatasuna aztertuko dute NaturClima-rekin

SAKANA

Klima-aldaketak planeta guztia iragiten dio eta, bereziki, babestuta dauden natur guneei. NaturClima Europako proiektua Pirinioen bi aldeetan dauden babestutako natur guneen kalteberatasun handian oinarritzen da. Urbasa-Andia eta Bertiz natur parke nafarrak, Pirinioetako Parke Nazionala eta itsasertzeko gunea atlantikoak eta itsasokoak hautatu dituzte proiekturako. Izan ere, hiru eskualdeetako natur- eta kultura-ondarearen adierazgarri dira gune babestu horiek, eta haien kudeaketa, gobernantza eta zerbitzuak egoera berrira egokitu behar dira.

NaturClima proiektuaren helburuen artean daude: natura-guneak kudeatzeko eta gobernatzeko lankidetzaren areagotzea, klima-aldaketara egokitzea babestu, sustatu eta hobetzeko, jardunbide egokiak identifikatu, inplikaturako guztien arteko ezagutza-transferentzia eta gobernantza parte-hartzailea bultzatu, eta esperientzia pilotu berritzaileak garatu, erreferentziako naturagune bihurtzeko, arazo berrira egokitzeko. Horretarako, hainbat ekintza tekniko aurreikusi dituzte. Proiektua 2022ko ekainera arte garatuko



Bustoren 'Gorri' argazkiak iragarriko ditu inauteriak

Altsasuko ihoteak iragartzeko karteiko irudia aurrenekoz herri bozketa bidez aukeratu dute

ALTSASU

Altsasuko momotxorroaren betiko irudiak herriko inauteriak iragartzeari utziko dio. Udalak karteiko irudia aukeratzeko herri-bozketa antolatzen duen eta Jon Busto altsasuarraren *Gorri* argazkia izanen da Altsasuko inauterien irudia. Herri bozketan botoen % 33 lortu du, bigarren bozkatuena Barañaingo Maria Angeles Albarrenen *Fuerza* argazkia izan da, botoen % 28arekin; hirugarren lekuan Mañeruko Ivan Rodriguezen *Sangre y fuego* irudia geratu da, botoen % 26arekin, eta, azkenik,



botoen % 13arekin, orain arte inauteriak irudikatu duen momotxorroaren irudia gelditu da.

Altsasuko Udalak herri bozketan aukeratu jarritako argazkiak joan den urteko herri-ihotean ateratakoak dira. Haren inguruan argazki lehiaketa antolatzen duen eta hiru argazki onenak saritu zituen. Horiek izan dira, betiko kartelarekin batera, herri bozketan hautagai izan zirenak. Bustok lehiaketako hirugarren saria eskuratu zuen *Gorri* lanarekin. Egun hartan haurrekin odolaren errituala ikustera joan zen. Normalean inauteriak disfrutatzearen zale da. Argazki lehiaketarako "bizpahiru ideia" bazituen. Eta horietako bat egitea lortu zuen. Zelandi ikastetxeko momotxorroaren irteeran izan zen, bengalek guztia gorritz tindatzen dutenean.



Joan den urteko ihoteak Ihabarren. ARTXIBOA

Goiz aterako dira moxorroak aurten

Ihabarko inauteriak aurreratu egin dituzte, eta larunbatean eta igandean ospatuko dituzte

IHABAR

Iluntzean ateratzen dira moxorroak, landarra, hartza eta Ihabarko inauterietako beste-lako pertsonaiak. Beraz, beranduegi ez ateratzeko, inauteriak otsailaren 8ko eta 9ko asteburura aurreratzea erabaki dute. Hortaz, bihar iritsiko da transformaziorako garaia Arakilgo herrian.

Bihar goizean, 11:00etan, puskabiltza egingen dute eta etxetxe janari bila joanen dira. Biltzen dutenarekin, herriko elkarteetan bazkaria egingen dute. Arratsaldean, moxorroak aterako dira kalera.

Moxorroa zuriz jantzita doa, gerrikoan zintzarriak daramatza eta buruan kapela zuria loreekin apainduta. Aurpegia estalita daramate, eta erratzarekin jendea zikintzen joaten dira. Larunbatean moxorroak bakarrik aterako dira eta etxetxe

etxe erronda egingen dute. Gainera, kaletik dabilen edonor, mozorrotuta egon edo ez, erratzarekin zikinduko dute. Ondoren, bajaran pikoteoa eta dantzaldia izanen da.

Igandean Ihabarko inauterien antzezpina egingen dute eta pertsonaia guztiak aterako dira: moxorroa, landarra, hartza eta beste. Moxorroz joaten direnak eta antzezpina egingen dutenak elkarteetan bilduko dira igande goizean, eta aurreko egunean jasotakoarekin bazkaltzera bilduko dira berriz. Iluntzen duenean antzezpina egingen dute. Hartza, ninia, landarra, moxorroak eta aitezako kalera aterako dira. Moxorroek, oraingoan, mozorrotuta ez dagoen jendea zikindu dute bakarrik. Kalejira egin ondoren, plazan, aitezarko erreko dute eta bere inguruan zortzikoa dantzatuko dute.



UTZITAKOA

Herri-ihoteen prestaketan hasiak Olatzagutian

Hilaren 22an, larunbatearekin, herri-ihoteak ospatuko dituzte olaztiarrek. Zamarraundiz edo zamartxikiz mozorrotzeko ezinbestekoa da ardi larruak bizkarean jantzea.

Olatzagutiako Udalak zenbait larru ditu, herri-ihotean parte hartu nahi dutenen eskura jarriko dituenak. Haien premia duten 13 urtetik gorako olaztiarrek asteleheneetik otsailaren 20ra bitartean udaletxetik pasa daitezke mozorrotzeko larruak jasotzera, beti ere, 10:00etatik 14:00etara.

Larrua hartzen duenak 20 euroko fidantza pagatu beharko du.

Sutan, ezin bestela bukatu

Irintarrak larunbatean ospatu zituzten ihoteak. Goizean, gosaldu ondoren, herrian barnako kalejira egin zuten. Bazkaldu ondoren, atzera ere, kalejira atera ziren. Oraingoan ihote segizoak Atxun Zarkoaren presentzia zuen. Herrian barna ibili ziren elkarte parean bukatzeko ibilbidea. Han Atxun Zarkoak sutan bukatu zuen. Bideoa: <https://labur.eus/EBNFV>

Guaixe, Beleixe eta guaixe.eus zure negozioaren bozgoragailu!

Tarifak: guaixe.eus/publizitatea
publi@guaixe.eus
948 564 275

Baxerri
ERRETEGIA

Ihauterietarako egin zure erreserba

Fernando Urkia kalea 50
31830 ARBIZU
T. 948 460 737 | M. 600 439 246

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.

948 460 037 Arbizu
948 460 411 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margolzea

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 7

LAKUNTZA Errotik Sakana parekidea.

Sakanako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako l. plana eratzeko parte hartze saioak: udal teknikariak eta Gizarte Zerbitzuak. Izena ematea: berdintasuna@sakana-mank.eus.
10:00etatik 13:00etara, Sakanako Mankomunitateko egoitzan.

ALTSASU Gazte agenda.

Neskak Santa Agedan dokumentalaren proiektzioa.
17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

BAKAIKU Kamarroak prestatzeko bilera.

19:00etan, udaletxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske.

20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU El silencio del pantano gaurkotasunezko filma.

22:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI Atzapar rock eta Kaotiko taldeen kontzertua.

22:30ean, frontoian.

LARUNBATA 8

LAKUNTZA Lapoblacion - Leon dormido ibilbidea eginen du Zabalarte mendi elkarteak.

08:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske plataformak antolatutako zortziko herrikoia.

13:30ean, lortia zabalgunean.

ALTSASU Gazte agenda.

Twister jokoak.
18:00etan, Intxostiapuntan.

IGANDEA 9

LAKUNTZA Ikusi makusi.

17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU El silencio del pantano gaurkotasunezko filmaren emana.

19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.

20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 10

ALTSASU Pentsio duinen alde.

Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea.

12:00etan, plazan.

LAKUNTZA Errotik Sakana parekidea.

Sakanako emakume eta gizonen arteko berdintasunerako l. plana eratzeko parte hartze saioak: emakumeak, mugimendu feminista eta emakume elkarteak. Izena ematea: berdintasuna@sakana-mank.eus.
17:00etatik 20:00etara, Sakanako Mankomunitateko egoitzan.

ALTSASU Musika eta dantza eskolaren jaialdia.

19:00etan, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 12

ALTSASU Literatur solasaldia.

Un amor que construye ciudades, Eleen Chang idazlearen eleberria.
18:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 13

ALTSASU Torturaren aurkako eguna.

Iluntasunetik argitasunera elkarretaratzea.
19:00etan, udeletxe aurrean.

ALTSASU 1917 gaurkotasunezko filmaren emanaldia.

19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU La deuda zineforuma.

19:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU La revolta de las urnes Dolors Gibert argazkilararen eta Carles B. Gordis kazetariaren erakusketa.**

Otsailaren 5etik 16ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatean emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur guneko erakusketa gelan.



JOKIN KALE

LAKUNTZA Jokin Kale artistaren erretratuen erakusketa.

Kale Txiki tabernan.

IRAGARKI SAILKATUAK

LOKALA ERRENTAN

Altsasun dugin bulegoa beste autonomo batzuekin partekatze prest dugu. Interesa baduzu jarri gurekin kontaktuan. Andoni 603 417 554.

LEHIAKETA

12. Elkar ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa martxan da: 4 urte-16 urtera bitarteko haur eta gazteek parte hartu dezakete. Sari ederrez gain, ikastetxei zuzendutako opari bereziak izango dira. Lanak aurkezteko epea apirilaren 17a arte izango da. Informazio gehiago www.elkar.eus-en, lehiaketa@elkar.

eus helbidera idatzita edo 943 310 301 tfnora deituta.

GALDUTAKOAK

Betaurrekoak galdu ditut Andia mendilerroan: Lizarragako tuneletik San Adrian basilizarako bide inguruan. Aurkitzen badituzu, mesedez, deitu 627 139 661 tfnora.

OHARRAK

Odsailaren 12an, 16:45tatik 20:30etara, www.adona.es/eu.

Odol-emateak Olaztin: otsailaren 19an 17:00etatik 20:30ra, www.adona.es/eu


Sei elkarteko boluntarioak: Sei elkarteak bakarrik dauden adingabe atzeritarrekin astean bi ordu egoteko 21 urtetik gorako boluntarioak behar ditu: asteartean Iturmendin eta ostegunetan Altsasuko gazte gunean, 17:00etatik 19:00etara. Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake, edo gestion@asociacionsei.org e-postara idatzi dezake. www.asociacionsei.org, informazio gutzia dago. www.iragarkilaburak.eus

ZORIONDU ETXeko TXIKIA!

ZORION@GUATXE.EUS
618 882 675


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 7




Goizean behe lainoa izan dezakegu baina ondoren eguzkia izanen da nagusi.

Larunbata, 8




Lainotua egongo da egun guztian zehar eta euria ere egin lezake.

Igandea, 9



Hego haizeak eguzkia ikusteko aukera handiagoa ekarriko du.

Astelehena, 10



Eguraldi nahasia izango da, eguzkia eta euria tartekatuko dira.

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com - www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU • Tel./Fax: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA

Jesus Suarez Martinez

*Aberria norberak bere baitan
Daraman lur zatia baino ez da
Baina nire aberria
Irriño baten barruan kabitzen da
Oroitzapenez osaturiko aberria da nirea
Zurea eta nirea
Izenik gabeko adio isil bat askotan
Beti arte, ez dakit noiz arte bat
Baina arte bat*



Zure anai-arrebak: Ángel eta Castillo García, Isabel eta Santiago Urteaga, José (zendua); zure ilobak: Castillo Suárez eta Andoni Irazustabarrena, Amalia Suárez eta Javier García, Pedro Urteaga eta Concepcio Mora, Fátima Urteaga eta Joaquim Sabater, Eva Urteaga, Juan Urteaga eta gainerako ahaideak.

ESKELA

Crescenciano Alvaro Pascual



Etxekoak
Etxarri Aranatz

ESKELA

Crescenciano Alvaro Pascual

Alfredo, gure lankidearen aita



Muxu handi bat lantaldearen partez!

ESKELA



Crescenciano Alvaro Pascual



(Ainhoa Alvaro Igoa, Iñigo Aritza ikastolako lehendakariaren aita)

Urak dakarrena
urak daroa,
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.

**Iñigo Aritza ikastolako familia, irakasle,
ikasle eta langileak**

ESKELA



Mari Karmen Ginea Galbete

(Olaztin hii zen atzo, 88 urte zituela)

"Beti egongo zara gurekin"

Hileta elizkizuna gaur, ostirala, arratsaldeko 17:00etan
Olaztiko San Migel parrokian izango da.

Zure familia

OROIGARRIA



Gure Santa Ageda ospakizunaren 40. urteurren
honetan zuen hutsunea sumatuko dugu.

"Beti gurekin"

Altsasuko 80ko kinta

HERIOTZAK

• **Crescenciano Alvaro Pascual**, otsailaren 3an Etxarri Aranatz

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70
@Grupolrache
f Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es

Pilota Goxua Txapelketan izena ematea zabalik

PILOTA Txapelketa otsailaren 21ean hasiko da eta otsailaren 14ra arte eman daiteke izena

Otsailaren 21ean abiatuko da Altsasuko Gazte Asanbladak antolatutako VI. Bikotekako Pilota Goxua Txapelketa, urtetik urtera harrera hobea duen txapelketa. Hainbat mailatan jokatuko da: 1. maila eta 2. maila, binaka; banakako maila; eta maila mistoa. Maila mistoan, bi emakumeek osaturiko bikoteak onartuko dira.

Txapelketan izena emateko epea zabalik dago otsailaren 14ra arte. Horretarako ondoko telefonoetara hots egin beharko da: 616 609 674 edo 646 772 899. Pertsoneko 10 euro ordaindu beharko dira. Partidak Altsasuko Burunda pilotalekuan jokatuko dira, ostiral arratsalde eta gauean eta domekako arratsaldetan. Finalak Altsasuko Alde Zaharreko festetan jokatuko dira, maiatzean.

Aurreko urteak eman zuena

Joan den urtean Binakako 2. mailan 13 bikotek hartu zuten parte, Binakako 1. mailan 12 bikotek, Banakakoan 10 pilotarik eta Emakumezkoetan 2 bikotek. Hortaz, guztira 27 bikote eta 10 pilotari aritu ziren Altsasuko Bikotekako V. Pilota Goxua Txapelketan, eta aurten ere partaidetza handia espero da.

ELOMENDI TXAPELKETA

15. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Modernillo - Zaldua 3-7

SAILKAPENA

ELOMENDI FOTBOL TXAPELKETA

1 Barasoain 39
2 Zaldua 34

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

Z/G Unziti - Zaldua (Larrabide)

Zaldua bide onean

Atzera ere bikain aritu zen Zaldua eta garaipen sendoa lortu zuten arakildarrek.

Finalerdietara zuzen joan nahi dute Zabaleta-Jakak

PILOTA Olaizolari eta Urrutikoetxeari irabaziz gero, liderrak zuzenean sailkatuko dira finalerdietara eta play-offak ekidingo dituzte. Ezkurdiak eta Martijak Artola eta Imaz izanen dituzte aurkari; seina punturekin, sailkapeneko bigarren postua dute jokoan

Binakako hasierako ligaxkako 12. jardunaldia jokatuko da asteburu honetan, eta Erik Jaka eta Jose Javier Zabaleta liderrek asko dute jokoan, finalerdietara zuzenean sailkatzea, hain zuzen ere. Gaur, ostirala, Olaizola II. aren eta Urrutikoetxea ordezkatuko duen Aitor Aranguren atzelari gaztearen kontra ariko dira Zestoan (22:00, ETB1). Euren 10. puntua lortu nahi dute Jakak eta Zabaletak, zuzenean finalerdietara sailkatzea ahalbideratuko diena, eta Baikoko bikoak, aldiz, 4 puntu ditu eta finalerdietara sailkatzeko borrokan egoteko, irabazi beharra du. Hortaz, partida lehiatua espero da. Ikusmin handia piztu du 40 urte dituen Olaizolak eta 20 urte dituen Aranguren nola konponduko ote diren ikusteak.

Aurreko jardunaldian Lasori eta Albisuri 22 eta 16 irabaztetik datoz Jaka eta Zabaleta, eta bide horretan jarraitu nahi dute. "Zestoan irabazi beharra dugu. Nabari du finalerdietarako sailkapena eskura dugula, baina irabazi beharra dugu azken orduko sorpresak ekiditeko. Ostiralean irabaziz gero play-offa ekidingo dugu, eta honaino iritsi garenez, hori da gure helburua" azaldu zuen Zabaletak material aukeraketan. Etxarrengo atzelariak



Zabaleta eta Jaka, aukeraketan. ASPE

onartu zuen garaipen batekin helburua lortuko dutela, finalerdietara zuzenean sailkatzea, baina txapelketako liderrek ez dute erlaxatu nahi. "Finalerdietara azkeneko hiru partidak irabazita heltzea gustatuko litzaziguke, modu horretan finalerdietara konfiantzarekin helduko ginatkeelako, animo onarekin" aitortu zuen. Halaber, Zabaletak arerioak ez direla nolanahikoak gaineratu zuen. "Aimarren kontrakoa, beti da partida zaila. Bestalde, Aranguren joko momentu oso onean

dago; ez naiz sekula berarekin aritu, ostiralean ariko gara lehenengo".

Ezkurdiak eta Martija sailkapeneko bigarren postua lortzera

Ezkurdiak eta Martijak 22 eta 16 irabazi zieten aurreko ostiralean, Zallan, Victorri eta Mariezkurrena II.ari. 7 puntu dituzte eta sailkapenean hirugarrenak dira, puntu berberak dituzten Artola-Imazen atzetik. Eta hain zuzen ere igandean, Tafallan, biko sakandarrak Artola eta Imazen kontra ariko dira, sailkapeneko bigarren postua erabakiko duen partida lehiatu eta gogorrean (17:00, ETB1). Jokoan dagoen puntua urrezkoa da eta dena ematera aterako dira maila bikainean dauden bi bikoak.

Bestalde, larunbatean, Labriten, Irribarria eta Rezusta Bengoetxea ordezkatuko duen Victorren eta Mariezkurrenaren kontra ariko dira (17:30). Irribarriak eta Rezustak bosgarren puntua lortu nahi dute, puntu batekin jokoan ezer ez duten baina taldekideak lagundu nahi dituzten Victorren eta Mariezkurrenaren kontra. Eta larunbatean, Bilbon, Altuna eta Ladis Galarzak Laso eta Albisu izanen dituzte aurkari (17:30). Bi bikoak seina puntu dituzte eta zazpigarrena dute jokoan.

Historia egiten jarraitzen dute

SASKIBALOA Naiara Diez altsasuarrak kapitain duen Gernika Lointek Bizkaia EuroCupeko final zortzirenetara sailkatu da lehen aldiz, Hungariako KSC Szekszard taldea bidean utzi eta gero. EuroCupeko final zortzirenetan Valencia Basket Club taldea izango du aurkari Gernika Lointek, eta joaneko partida otsailaren 20an jokatuko dute etxean, Malosten,



GERNIKA LOINTEK

FUTBOL PREFERENTEA

17. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Lagun Artea - Ondalan 4-1
Mutilbera - Etxarri Aranatz 1-0

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Beti Casedano 33
2 Lakuntzako Lagun Artea 31
16 Etxarri Aranatz 15

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

15:45 Arrotxapea - Lagun Artea (El Irati)
16:15 Etxarri - Amigo (San Donato)

Txanponaren bi aldeak

Lagunek Ondalan hartu zuen, eta 15. minuturako hiru gol sartu zituen Lagunek -Nabil (2) eta Igantzi-. Unai Zubiria aldagelatar bidali zuen arbitroak, baina Lagunek ongi eutsi, eta kontraerasoan Unai Bakaikoak sartutako golarekin 4 eta 1 irabazi zuen. Bestalde, Mutilberaren kontra saiatu egin zen Etxarri, baina ezin. Mutilberak dominatu zuen, gola sartu, eta nahiz eta etxarriarrak partida berdintzen saiatu, hiru puntuek ihes egin zuten.

ERREGIONALA GIZONAK

17. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Berriozar - Altsasu 4-2

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA

1 Universidad de Navarra 43
11 Altsasu 13

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

11:45 Altsasu - Gazte Berriak (Dantzaleku)

Altsasu Berriozarren kontra erori zen

Berriozarrek dominatu zuen eta 3 eta 0 aurreratu zen. Altsasuk ez zuen etsi, eta lmanolek gorritxoan lehen gola egin zuen. Berriozarrek beste gol batekin erantzun zuen, eta Davidek Altsasuren bigarrena, eta horrela despeditu zen partida.

ERREGIONALA EMAKUM.

19. JARDUNALDIKO EMAITZA
Baztan - Altsasu 2-4

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Castejon 50
6 Altsasu 33

HURRENGO JARDUNALDIA

ALTSASUK ATSEDEN JARDUNALDIA DU

Altsasuko neskek, seigarrenak

Baztan taldearen kontra errezitaldi bikaina eman zuen Altsasuk. Eider Vicentek, bitan, eta Ainhoa Agirrek, bitan, sartutako golei esker, 2 eta 4 irabazi zuten gure neskek eta sailkapenean 6. postura igo dira.

Sakanako Aizkora Eskolan aritu nahi duzu?

AIZKORA Martxoaren 3an hasiko da Sakanako Aizkora Eskola, erdoziatarrek Etxarri Aranatzeko gidatuko dutena. 10 urtetik aurrerakoek eman dezakete izena, otsailaren 25a baino lehen, Sakanako Mankomunitatean

Sakanako Mankomunitateak herri kirolak babesten jarraituko du beste behin eta, aurten ere Sakanako Aizkora Eskola antolatuko du. Aurreko urtean bezala, Juanito Erdozia, Migel Angel Erdozia eta Juanjo Erdoziak gidatuko dute eskola, Etxarri Aranazko euren bordan, eta aizkoran hasi, probatu edo trebatu nahi dutenendako primerako aukera da Mank-ek eskaintzen duena. Klaseak Etxarri Aranatzeko izanen dira, erdoziatarren bordan, martxoaren 3tik maiatzaren 8ra bitartean, asteartean eta ostiralean, 19:30etik 20:30era.

Baliabideak eskaini

Izan ere, sarritan herri kirolean aritzea nahiko genuke, baina horretarako beharrezkoak diren materialak eta baliabideak izatea -aizkorak, enborrak, entrenatzeko tokia...- ez dago denen eskura. Eta, hain zuzen ere, gabezia horiekin irtenbidea emateko sortu zuen Mankomunitateak

Sakanako Aizkora Eskola, aizkoran hasi edo trebatu nahi dutenei kirol honetan murgiltzeko baliabideak emateko. Sakanako Aizkora Eskolarekin, aizkoran hasteko baliabideak eskura dituzte bertan izena ematen dutenek. Hasieratik arrakasta handia izan du Sakanako Aizkora Eskolak eta urtero bertan aritzeko tokiak betetzen dira. Bestalde, Sakanako Aizkora Eskolarekin, aizkora bulkatzeaz gain, Sakanako aizkolari harrobi on bat osatu nahi da. Asko dira bertatik atera diren aizkolariak, egun txapelketetan aritzen direnak.

Izena ematea zabalik, otsailaren 25a baino lehen

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan eman behar da izena, otsailaren 25a baino lehen (948 464 866, kirolak@sakanamank.eus). Prezioa: 55 euro. Adina: 10-20 urte bitarteko neska-mutilak. Tokia badago, helduegok ere.



Juanito eta Migel Angel Erdozia, ikasleei argibideak ematen. ARTXIBOA

Retegi Bi, Irurtzun Pilota Klubeko pilotari berria

PILOTA Euskal Herriko Kluben Arteko VI. Txapelketa Nazionalen finalerdietara sailkatu da Irurtzun

Retegi Bik Asperekin profesional izateari utzi zion. Bere despedidan, ez duela pilota utziko adierazi zuen, eta afizionatuen mailan aritzea erabaki du, hain zuzen ere Irurtzun klubean. Bada, Euskal Herriko Kluben Arteko VI. Txapelketa Nazionalen, larunbatean Irurtzun kluba Tolosako Aurrera klubaren kontra aritu zen Zumagarran, txapelketako final laurdenetan, eta Irurtzunek sekulako maila eman eta finalerdietarako sailkatu zen. Retegi Biren bueltak ikusmin handia sortu zuen.

Nazionalen final laurdenetan, lau eta erdian, Josu Olaetxeak (Irurtzun) Eneko Labaka (Aurrera) 18 eta 17 hartu zuen mendean, partida ikusgarrian. Buruz burukoan, Retegi Bik (Irurtzun) 16 urteko Amiano (Aurrera) izan zuen aurkari, eta 18 eta 7 gailendu zen. Eta Binakakoan, Ongayk eta Bergerak (Irurtzun) 22 eta 17 hartu zituzten mendean Elola eta Telletxea (Aurrera), partida ikusgarrian.

Finalerdietan, Irurtzunek Obearena edo Paz Ziganda izango du aurkari.




Gure ikasleen ahotan



Sarabe Goikoetxea Mazkianan (Altsasu, 19 urte)

Mondragon Unibertsitateko Basque Culinary Center-en ikasten ari da Gastronomía eta Sukaldaritzako Arteak graduako bigarren maila.

"Gastronomia ez da sukaldaritzak bakarrik, aukera desberdin asko daude"

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik? Ikasketak Altsasun egin ditut, Lehen Hezkuntza Zelandi ikastetxean eta DBH eta Batxilergoa Altsasuko Institutuan. Nire hobbiaren artean musika eskolako saxofoia ikasketak zeuden, baina ikasketengatik utzi nuen. Aurten Donostiako Bera Bera errugbi taldean sartu naiz.

Zergatik aukeratu zenuen gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea? Betidanik sukaldaritzak gogokoa izan dut. Bi aukera nituen, unibertsitatea edo Lanbide Heziketa. Basque Culinary Center eta Bartzelonako unibertsitate bat begiratu ondoren, ospearengatik eta gertutasunarengatik BCCA aukeratu nuen.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia? Oso pozik nago. Alde batetik, ikasketak sistema guztiz ezberdina da, praktika eta teoria partekatzen ditugulako. Bestetik, urtero 25 plaza kanpotarrentzat gordetzen dituztenez, lan taldean nazio desberdinetako jendearekin gaude: brasildarrak, Alemaniako jendea, mexikarrak... eta kultura ezberdinak ezagutzen ditugu.

Nola definituko zenuke BCC-n jasotzen duzun ikasketako metodologia? Ikasketako metodologiak ez du ezer ikusirik orain arte izan dudanarekin, honetan teoria eta praktikak partekatzen ditugu: sukaldaritzak, Fisika eta Kimika edota sumilleria tailerrak, besteak beste. Ebaluazioak konpetentzien bitartez jartzen dira, ikasgai guztiak 13 kon-

petentzia ezberdinetan banatzen baitira. Beste aldetik, taldean lan egitea oso garrantzitsua da. 100 ikasleak 8 taldean banatu gintuzten eta oraindik tailerretan lan talde berdinarekin jarraitzen dugu, sukaldaritzak munduan taldean lan egiten jakitea ezinbestekoa delako.

Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaizuna?, Eta zerbait hobetzeko? Gehien, unibertsitateak ematen dizkigun ikasketako aukera guztiak, praktikak eta proiektuak, bereziki. Bi urte hauetan konturatu naiz gastronomía ez dela sukaldaritzak bakarrik, barnean milaka aukera desberdin daudela. Gainera ikasketak bidaiak egiten ditugu urtero, iaz Galiziara eta aurten Errioxara.

Beste alde batetik, nahiz eta gradu honek gauza onak izan, sukaldetan ez gara nahi nukeen bezainbeste denbora egoten.

Zer nolako ekarpena egiten dizu praktikak egiteak? Lau urteetan zehar ikasturte bukaeran praktikak egiten ditugu. Iaz Donostian egin nituen, baina aurten Bartzelonan egingo ditut, gozotegi batean. Hurrengo urtean Asian edo Ameriketako egitea gustatuko litzaidake.

"Ziklo-kros denboraldia ona izan da, pozik nago"

IGOR ARRIETA LIZARRAGA TXIRRINDULARIA

ZIKLO-KROSA Igandean Mundialetan parte hartu zuen Uharte Arakilgo txirrindulariak eta trabak eta erorikoak tarteko, 40.a sailkatu zen

Maider Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL. Asteburuan Munduko Ziklo-Kros Txapelketa jokatu zen Dübendorf. Gizonezkoen junior mailako proban aritu zen Igor Arrieta Lizarraga uharterra, Espainiako selekzioarekin. Lasterketa gorabeheratsuan Belgikako Thibau Nys gailendu zen, ikusgarri aritu eta gero (38:50). Igor Arrieta 40. postuan iritsi zen helmugara, 5 minutura, Espainiako selekzio taldeko lehena. **Zer moduz zegoen Dübendorfeko zirkuitua?**

Larunbatean zirkuitua nahiko ongi zegoen, baina gau osoan euria egin zuen eta iganderako zirkuitua guztiz aldatu zen, gutzia lokaztua zegoen. Junior mailako lasterketan 70 txirrindulari inguru aritu ginen, igandean. **Nolakoa izan zen lasterketa?** Hasiara nahiko ona egin nuen, baina lehenengo bihurgunean nire aurrean zihoan txirrindularia bota egin zen, berarekin oztopatu egin nintzen eta moz-



Igor Arrietak goitik behera lokaztuta despeditu zuen Mundiala. ESPAINIAKO SELEKZIOA

tuta gelditu nintzen, trabatuta. Hor postu batzuk galdu nituen. Hurrengo bueltan akats batzuk egin nituen, pare bat aldiz erori nintzen lurrera, jende askok aurrerratu zidan eta nahiko atzera-tu nintzen. Hirugarren bueltan,

erremontatzen hasi nintzen, postuak hobetzen, baina belau-
nean kolpea hartu nuen eta, azkenean 40. postuan iritsi nintzen helmugara, eta alde horretatik pena daukat, baina beno... Nys irabazletik 5 minutura sartu

nintzen, Espainiako selekzioetik azkarrena.

Thibau Nys txapeldunak fenomeno hutsa dirudi...

Bai, fenomeno hutsa da. Hemendik kanpo ziklo-krosean sekulako maila dago. Lasterketa guztietan nabaritzen da hori, eta Mundialetan gehiago.

Egindakoarekin kontentu zaude? Zirkuitua nahiko gogorra zen, lokatzean itsasita bezala gelditzen zinen, ia ez zenuen aurreratzen. Eta esperientziarekin orohar kontentu nago. Ez da atera espero nuen lasterketa, baina egindakoarekin pozik nago.

Ziklo-kros denboraldia bukatuta, balantze positiboa egingo duzu, ez? Espainiako txapelduna, Nafarroako txapelduna, Euskal Herriko txapeldunordea, Ziklo-kros Mundialetan aritzea...

Bai, ziklo-kroseko aurtengo denboraldiaren balantzea positiboa da. Denboraldi ona izan da, ia lasterketa guztiak irabazi ditut, eta nahiz eta Mundialean lan hobea egin ahal izan, pozik nago. **Aurki errepideko denboraldia hasiko da, ezta?**

Oraindik ez dakit ziur noiz hasiko den, baina otsailaren bukarran edo martxoaren hasieran izango dugu lehen lasterketa. Helburua joan zen urtean bezala ibiltzea da, ondo aritzea, eta selekzioarekin ahal diren lasterketa guztietara joan eta lan ona egitea. Iaz Europako Txapelketan eta Mundialean aritu nintzen, ea aurten era posiblea den.

DUATLOIA Mikel Astiz hirugarren nafarra Tuteran

Asteburuan Tuterako Duatloi Krosa jokatu zen, Nafarroako Duatloi Kros Txapelketa. Horrela, 2020ko duatloi denboraldiari hasiera eman zioten Sakana Triatloi Taldeko kideek eta beste taldetan aritzen diren kirolari sakandarrek.

Tuterako Duatloi Kroseko proba nagusiak sprint distantzia zuen -5,5 km korrika, 22 km bizikletan eta 2,5 km korrika- eta guztien artean Soria taldeko Sakandarrei dagokienez, Pablo Perez gailendu zen (1:07:03). Aurtent Donibane taldean dabilen Ihabarko Mikel Astiz Erro bosgarrena izan zen helmugan (1:07:37), eta Nafarroako Txapelketan hirugarrena sailkatu zen. Bestalde, Juan Luis Maiza etxarriarrak lasterketa ona egin zuen eta 31. postuan sartu zen (1:14:41), bere kategorian, beteranoen 2. mailan, hirugarrena eta Nafarroako txapelketan bigarrena. Bestalde, emakumezkoetan, Salko taldeko Enara Oronoz izan zen azkarrena (1:16:57).

Nafarroako Kirol Jokoetarako baliagarria zen kategoria txikitako lasterketetan ongi ibili ziren sakandarrek. Horrela, gizonezkoen benjamin mailan Unax Maziarian bosgarrena sailkatu zen, eta gizonezkoen haurren mailan seigarrena iritsi zen helmugara Ekain Imaz.

Olga Garziandiak ezin izan zuen Biatloi Mundiala despeditu

BIATLOIA Munduko Biatloi Txapelketako proba erdia egin zuela utzi behar izan zuen, ondoezik

Ilbeltzaren 25etik otsailaren 2ra bitartean Munduko Biatloi Txapelketa jokatu zen Lenzerheiden (Suitza), eta bertan aritu zen Olgaz Garziandia Ijurko. Biatloia ipar-eskia eta tiroa batzen dituen kirola da. Junior mailan Espainiar estatutik aritu zen bakarria izan Garziandia, baina, tamalez, etxarriarrak ez zuen zorrea alde izan eta proba erdian erretiratu egin behar izan zen.

Ondoezik eta urduri

Mundialetan, junior mailako bi probatan aritzekoa zen Olga Gar-

ziandia. Lehena ilbeltzaren 27an jokatu zen, Banakako proba. Probak 12,5 km-ko distantzia zuen (2,5 km-ko bost eski saio, tartean 4 tiro jaurtiketekin). Eta bigarrena otsailaren 1ean jokatu zen, larunbatean, 7,5 km-ko Esprinta (2,5 km-ko hiru eski saio, tartean 2 tiro jaurtiketekin). Ilbeltzaren 27ko Banako Proban, ibilbidearen erdia egin zuenean, proba utzi behar izan zuen Olgak. "Ez nengoen batere ondo, gaizki sentitzen nintzen. Bezperan ez nuen ondo lo egin, estresatuta, oso nekatuta sentitzen nintzen



Olga Garziandia, Biatloi Mundialean. UTZITAKOA

eta oso urduri nengoen, eta horrek ez zidan batere lagundu. Horregatik, proba erdia egin eta berdin jarraitzen nuela ikusita, proba uztea erabaki nuen. Azken finean, errifle bat daramazu gainean eta ondoezik zaudela biatloian aritzea

ez da gomendagarriena" aipatu digu Olga Garziandiak.

Penatuta, baina esperientzia ona Sekulako pena zuen etxarriarrak, eta hurrengo lasterketan, larunbatean jokatu zenekoan ere ezin

izan zuen aritu. "Hala ere, esperientzia oso polita izan da. Proba utzi behar izan nuen baina hurrengo egunetan hobeto sentitu nintzen eta eskiatzen ibili nintzen, lasai lasai, eta Biatloi Mundialetako gainontzeko probak ikusten. Ikusgarriak izan dira" gaineratu du.

Frantziako selekzioa da biatloian faboritoen artean dagoen selekzioa, baina aurten frantziarrek ere kale egin dute, ez dira horren fin ibili. "Nire kategorian, normalean lehena sailkatzen den neska frantziarra ez da horren ongi ibili eta 7. edo 9. postuan sailkatu da. Norvegia, Italia eta Suitzako ordezkariak izan dira onenak" kontatu digu Olgak. Biatloia alde batera utzita, hemendik aurrera Espainiako Ipar-eski Kopan murgilduko da eskiatzaile etxarriarra.

Maidar Betelu Ganboa ITURMENDI

Amateur mailan bere bigarren urteari ekiteko prest dago Josu Etxeberria Azpilikueta (Rural Kutxa-Seguros RGA). Bihar hasiko du denboraldia, Lorcan.

Burunda klubarekin hasi zinen txirrindularitzan. Ondoren, Aralar klubean egin zenituen kadete eta junior mailak, eta 2019an Rural Kutxa-Seguros RGA taldearekin egin zenuen salto afizionatueta. Guztiak, talde sakandarrak.

Bai, hala da. Jubeniletan ongi ibili nintzen, eta hainbat garaipen lortu nituen, Gipuzkoako Itzulia eta Iruñeko Itzulia tartean. Bestalde, Rural Kutxakoak hasieratik izan ditut nire ondoan, laguntza ematen, eta azkenean pausuz pausu honaino ekarri naute. Etxeko taldea da, eta oso pozik nago Rural Kutxan nagoelako.

Joan zen urtean debutatu zenuen amateur mailan. Garaipen bat lortu zenuen, Palentziako Itzuliko azken etapa, eta 15 probatan lehen 10 postuen artean edo Top-Tenean sailkatu zinen. Zer nolako balantzea egiten duzu?

Azkenean oso ondo atera zen. Hasieran gaizki pasa nuen; maila banuen, baina zorterik ez. Eta denboraldi amaieran Palentziako Itzuliko azken etapa irabazi nuen, eta ia lasterketa guztietan Top-Tenean nengoen. Denboraldia ongi bukatzea oso polita da. **Horrenbesteko saltoa al da junior mailatik afizionatueta doana?**

Bai. Niretzat saltorik handiena da. Juniorretan zure adineko jendearen aurka edo gehienez urte bat zaharrago direnen kontra aritzetik, zu baino askoz helduagoak direnen kontra aritzera pasatzen zara. 19 urte ditut eta 26 urte duen jendearekin aritu naiteke. Azkenean maila handiago da, eta dena aldatzen da, lasterketan aritzeko modua baita. Maila honek askoz gehiago eskatzen du.

Taina hartu al diozu amateurren mailari?

Nik konfiantzarekin bukatu nuen aurreko urtea, irabazteko postuetan sartuta. Uste dut nahiko ongi egin naizela kategoriara.

Aurtengoa, afizionatuen bigarren urtea, beste esperientzia batekin hasiko duzu. Zein da helburua?

Beti bezala, ahal ditudan lasterketa guztiak irabaztea. Nire ametsa profesionaletara pasa ahal izatea da, eta, ahal izanez gero, beste mundial bat korritzeko aukera izatea.

"Noizbait profesionala izatea, hori da nire ametsa"

JOSU ETXEBERRIA AZPILIKUETA RURAL KUTXA-SEGUROS RGA TALDEKO TXIRRINDULARIA
TXIRRINDULARITZA Larunbatean, Murtzian, 2020 denboraldiari ekingo dio afizionatueta bere bigarren urtea egingo duen txirrindulari iturmendiarrak



Josu Etxeberria Azpilikueta. RURAL KUTXA-SEGUROS RGA

Badirudi oso argi duzula txirrindulari profesionala izan nahi duzula.

Bai. Orain arte ikasten aritu naiz, eta Erdi Mailako gradu bat atera dut. Aurten soilik bizikletan ariko naiz; probatuko dut, eta ea zer pasatzen den. Txikitatik txirrindulari profesionala izatea nahi izan dut, eta nik horretarako egiten dut lan; hori da nire ametsa. Gero lortu edo ez lortu, joango gara ikusten, baina dena eman behar da.

Zure egun normal bat nolakoa da?

Goizeko 8:00etan esnatzen naiz, gosaldia egiten dut eta ondoren lasai egoten naiz tarte batean. Izan ere, entrenatu aurretik lasai egotea gustatzen zait. Eta ondoren arropa, bizikleta eta beharrezkoak direnak prestatu eta entrenatzera joaten naiz.

Zenbat ordu entrenatzen dituzu?

Egunaren arabera. Entrenamendu normalak hiru orduren bueltan daude, eta entrenamendu on eta luze bat 5 ordu pasan, ia 6 ordutan.

Astean atsedean egunik hartzen duzu?

Bizikleta utzi, inoiz ez (kar, kar...). Guretzat deskantsua da ordutxo pasako buelta bat lasai ematea.

"TODOTERRENOA NAIZ, AHALIK ETA TXIRRINDULARI OSOENA IZATEKO LAN EGITEN DUT"

Eguraldi txarra egiten badu erro-dilloan edo arrabolean ibiltzen zara? Edo nahiago duzu Mediterraneo aldera joan eguraldi onaren bila?

Oraintxe erro-dilloan nago (kar, kar...). Hemengo neguak gogorak dira, eta nik nahiago dut erro-dilloa egin. Ilbeltzaren bukaeran Rural Kutxarekin Mediterraneoan izan ginen eta han ondo entrenatu genuen.

Eta nola zaude? Sasoi betean?

Bai. Ilbeltzaren 18an, Mallorcan, erorketa izan nuen pistan. Zorionez susto bat izan zen, ezer larririk ez, eta ongi ari naiz entrenatzen. Asteburu honetan hasiko dut denboraldia, Murtzian, larunbatean Lorcan jokatu den 3. Guadalentin Itzulian.

Iturmendin Santa Ageda ospatzen eta zu Murtzian?

Bai, aurten horrela tokatu da. Txirrindulariak ohituta gaude gauza hauetara...

Rural Kutxak talde profesionala du, eta etxean talde profesionala izateak zer edo zer erraztuko du profesionaletara pasatzeko kontua; ate bat baduzue.

Hemen ez dago sekreturik. Maila baduzu eta urtea ongi badoa-kizu, azkenean taldeak aukera bat emango dizu. Igual beste talde batean egonda, han berdina ibilita eta maila berdina izanda, askoz zailagoa da profesionaletara igotzea. Nik uste dut horretarako talde bikainean nagoela.

Pistan ere aritzen zara.

Urtero egiten dut pista, gehienbat neguan, errepideko denboraldia hasi aurretik maila hartzeko. Pistak txirrindulari osoago bat egiten nau.

2019ko Nafarroa Itaroa Challengean bigarrena sailkatu zinen eta Lehendakari Txapelketan 11.a.

Niri gustatzen zait urte hasieratik bukaerara arte nire maila ahalik eta hobekien mantentzea, ez pikoak egitea. Egunez egun eta lasterketaz lasterketa joanda, urte bukaerako sariak daude, eta bertan saritzea gauzak ondo egin dituzula esan nahi du.

Nola definituko zenuke zure burua txirrindulari gisa?

Ez nago alor konkretu batean espezializatuta, todoterrenoa naiz. Denetan ondo ibiltzea gustatzen zait, eta nire ahultasunak eta hobetu egin behar ditudan gauzak lantzen ditut, ahalik eta txirrindulari osoena izateko. Horretarako egiten dut lan.

Zorte ona izan dezazula! Eskerrik asko!



Asteartean banatu ziren 2019ko Sakanako Atletismo Kopako sariak, Lasa Kirolak dendan.

Erkuden San Martin eta Javi Moreno txapeldunak

ATLETISMOA Asteartean Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Lasa Kirolak babeslezarekin antolatutako 2019ko Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariak banatu ziren. 5 probek puntuatzen zuten. San Martin eta Moreno izan ziren onenak

Asteartean 2019ko Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariak banatu ziren Lasa Kirolak dendak Altsasun duen dendan. Sakanako Mankomunitateak antolatzen du Kopa, bailaran atletismoa sustatu eta gurean antolatzen diren lasterketetan bertako korrikalarien parte-hartzea sustatzeko. Mankomunitateko kirol teknikariak, Amaia Gerrikagoitiak, nabarmendu zuenez, “2019an 16. Sakanako Atletismo Kopa antolatu zen, jada 16 edizio, eta aurten ere Sakanako Kopa antolatuko da, 17. urtez jarraian”. Lasa Kirolak babesle nagusiaren laguntza eskertu zuen Gerrikagoitiak, sariematea egin baino lehen.

2019an Sakanan antolatutako bost lasterketek puntuatzen zuten: VI. Ziordiko Herri Krosak (apirilak 6), XVI. Aitzkozar Herri Krosak (ekainak 15), Ergoienako XVI. Birak (irailak 21), Sakanako XIX. Herri Lasterketak (urriak 26) eta Altsasuko Barricareren XXXIX. Oroimenezko Oinezko

Lasterketak (abendua 8). Sakanako 10 korrikalari hoberenek puntuatzen zuten, eta Sakanako Kopako saria jaso ahal izateko lasterketa guztietan parte hartu behar zen, batean izan ezik.

Horrela, emakumezkoetan Erkuden San Martin Gonzalez etxarriarra gailendu zen, Izaskun Beunza Azazeta olaztiarraren aurretik. Hirugarrena Maite Zabaleta Gomez etxarriarra izan zen. Eta, gizonezkoetan, Javi Moreno Jorge altsasuarra izan zen kopako irabazlea, Raul Audikana Arrese olaztiarraren eta Jose Javier Maiza Begiristain etxarriarraren aurretik. Irabazleek 80 euro jaso zituzten, Lasa Kirolak gastatzeko, bigarrenek 60 euro eta hirugarrenek 40 euro.

AURTEN ERE SAKANAKO ATLETISMO KOPA ANTOLATUKO DU MANKOMUNITATEAK

Horretaz gain, Koparako puntuagarriak ziren bost lasterketetan parte hartu zuten artean – Erkuden San Martin, Javi Moreno, Iñigo Orella eta Joxeja Maiza – Lizarragako tuneleko aterpean gau bat eta gosari bat zozketatu ziren eta Javi Moreno-ri egokitu zitzaion saria.

Irabazleak pozik

Pozik zegoen Javi Moreno. “Eskuineko belaunean min sentitzen nuen, erresonantzia egin eta lotailu gurutzatua gaizki nuela ikusi zuten. Bi urte egon nintzen lasterketetatik erretirata, arazoa ebakuntzarik gabe sendatzen saiatzeko, laser bidez. Askok hobeto nago eta aurten, behintzat, lasterketetara itzuli naiz, eta jarraitzeko asmoarekin.” azaldu zuen. Erkuden San Martin ere kontentu zegoen. Sakanako herrietako lasterketetan parte hartzea gustuko du korrikalari etxarriarrak, eta sasoi betean dagoenez, aurten ere Kopa irabazi du.



Emakumezkoen podiuma, Beunza eta Estarriaga tartean. NAFARROAKO FEDERAZIOA

Beunza eta Estarriaga primeran Nafarroako Kros Luzean

ATLETISMOA Izaskun Beunza bosgarrena sailkatu zen eta Leire Estarriaga Nafarroako 23 urtez azpiko hirugarrena

Igandean Lizarrako Krosa jokatu zen Los Llanos zirkuituan, aldi berean Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa izan zena. Goiz eguzkitsua izan zen, eta tarteka beroari egin behar izan zioten aurre korrikalariak. Gizonezkoek 9,3 km-ko proba osatu behar izan zuten eta Grupompleo taldeko Javier Nagorek irabazi zuen (29:13). Nagorek onartu zuen hasieran erraz egin zuela aurrea, baina azkenean proba “luzea” egin zitzaioala onartu zuen. Halaber, korrikalarien maila “geroz eta handiagoa” dela nabarmendu zuen. “Urtero jende gehiago dator; oso indartsuak diren korrikalari gazteak datoz atzetik, eta otsailaren bukaeran jokatu diren pista estaliko Espainiako Kros Txapelketan aritu ahal izateko maila eman eta aurrean egon behar da” aipatu zuen. Nagoreren atzetik Jaouad Boualame (Ribera Atletico, 29:46) eta Ayrton Izkue (Ardoi, 30:11) sailkatu ziren.

Beunza 5. eta Estarriaga 22.

Emakumezkoek 7,2 kilometroko distantzia osatu behar izan zuten. Amaia Melero ez zen aritu, bezperan Valentzian aritu baitzen, eta nabaritu egin zen. Alicia Carrera (Grupompleo) ere Valentzian aritu zen, baina Lizarran aritzea erabaki zuen eta hasieratik hartu zuen aurrea. Nagusitasun handiz gailendu zen Grupompleo taldeko korrikalaria (26:44), eta Vanesa Pachak (Hiru-Herri, 27:02) eta Nuria Rodriguez (Beste Iruña, 27:18) osatu zuten podiuma. Izaskun Beunza olaz-

tiarrak (Beste Iruña) lan bikaina egin zuen eta bosgarren postuan gurutzatu zuen helmuga (28:11). Aipatzekoa da ere Leire Estarriaga Navarro etxarriarra oso ongi aritu zela. Proba nagusian 22. postuan sailkatu zen (32:37) eta Nafarroako Kros Luzeko Txapelketako 23 urtez azpiko emakumezkoen mailan hirugarrena sailkatu zen.

Izaskun Beunzak Espainiako Pista Txapelketa du hurrengo helburu

Izaskun Beunza pozik dago igandean Lizarran egindako lanarekin, bere denbora hobetu baitu. Hala ere, beroarekin sufritu zuela aitortu digu. “Tarteka bero handia egiten zuen, eta gogorra egin zen, baina bosgarrena sartu nintzen, denbora hobetu nuen, eta oso kontentu nago” aipatu digu korrikalari olaztiarrak.

Kros denboraldian dabil Beste Iruña taldeko korrikalari olaztiarra, eta aurki pistan entrenatzen hasiko da buru-belarri, apirilaren 9an Portugalen jokatu den Espainiako Atletismo Pista Txapelketan arituko baita, 10 kilometroko proban. “Espainiako Txapelketan aritu ahal izateko eskatzen den gutxieneko denbora egitea lortu dut eta bertan aritzea lortu dut. Oso kontentu nago, eta helburua proba ongi prestatzea da. Estatuko atleta onenekin aritzea handia izango da niretzat, eta horrekin konformatzen naiz, baina ahalik eta lan onena egin nahi dut” adierazi digu.



Drimtin eta Sakaña taldeko kideak Iturmendiko gaztetxean. NAF. BERTSOZALE ELKARTEA

Sakandarrek txapelketaren lehenengo puntuak jaso dituzte

Sakaña taldea fin aritu zen eta Iturmendiko saioko irabazlea izan zen. Bere multzoko lehenengoa da

SAKANA

Aurreko asteburua hasi zen Bardoak 2020 Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa Etxarrin, Txantrean, Erron, Beran, eta "etxean", Iturmendin jokatu aurretik, Sakaña da lehendabizikoa 16 punturekin.

Iturmendiko gaztetxearen urteurrena baliatu zuten Bardoak 2020 sakandarrek etxean jokatzeke. Eta agian horregatik, etxean jokatzeagatik, lortu zuten bertsolari sakandarrek saioaren garaipena. Iruñeko Txantrea auzoko Drimtin taldearekin aritu ziren. Unai Artiedak egin zituen aurkezle lanak eta 50 la-

gun baino gehiago gerturatu ziren saioa ikustera.

Ekain Alegre, Eneko Lazkoz, Idoia Granizo, Joxema Leitza, Saats Karasatorre eta Unai Artieda bertsolari sakandarrek osatzen dute Sakaña taldea. D multzoan dago. Iturmendiko garaipenaren ondoren, multzoaren sailkapenean lehenengoa da 16 punturekin. Bigarrena Lamixene taldea da 12 punturekin, hirugarrena Amortziaren eliobak da 10 punturekin eta Drimtin taldea momentuz azkena da 6 punturekin. Asteburuak utzitako emaitzekin sailkapen orokorrean ere Sakaña taldea lehenengoa da.

Gaur txapelketaren bigarren asteburua jokatuko da Elgorriagan, Barañainen, Lizarran eta Iruñean. Sakaña taldeak atsedena izango du datorren asteburura arte.

Rock gaua Olaztin, Atzapar Rock eta Kaotiko taldeekin

Gaur, 22:30ean, Atzapar Rock eta Kaotiko taldeen kontzertua izanen da Olaztin frontoian. Kaotikok kontzertua eskaini behar zuen uztailean, herriko festetan, baina eguraldi txarra zela eta bertan behera utzi behar izan zuten. Herrira itzuliko zirela zin egin zuten, eta gaur egunean zand da aukeratutako eguna. Jon Morcillo olaztiarra da Kaotiko talde-

ko baxu-jolea. Atzapar Rock taldearekin ariko dira.

Atzapar Rock taldeko kideak gazteak izan arren, hasieratik arrakastatsuak izan dira. Azken garaipena, III. Avetoro Pitillas jaialdian parte hartzea eta lehian bideoklip onenaren saria irabaztea izan da. Akelarre elkarte saria irabazi zuten ere, bere lehenengo diskoa kaleratu dute, eta Berri Txarrak taldeak Kobetamendin egindako kontzertu handiaren parte izan zen ere.

Musikarien erretratuak tabernako hormetan

Jokin Kale margolari lakuntzarrak erakusketa "txiki" bat jarri du Lakuntzako Kale Txiki tabernan. Kalek bi pasioak batzen ditu: pintura eta musika. Orain, hiru "fronte" ditu eta paisaiak eta galgoak margotzen ditu

LAKUNTZA

Formatu txikiko erakusketak egin ohi ditu Jokin Kale lakuntzarrak. Izan ere, "honetaz ez bazara bizi" galerietan kasu gutxi egiten dietela azaldu du: "ez dute zure lana begiratzen ere". Beraz, erakusketak antolatzen dituzten tabernetara jotzen du bere lana erakusteko. "Azkenean, hainbeste ordu margolan batean lan egin ondoren, jendeak ikustea nahi duzu". Oraingoan, Lakuntzako Kale Txiki tabernan jarri ditu hainbat koadro; zenbait teknikarekin egindako musikarien erretratuak guztiak.

Musikarien erretratuak da Kaleren bereizgarria. "Beti egin ditut musikarien erretratuak". Musikaririk gabe bizitza ez duela ulertzen esan du artistak. "Egunero musika entzuten dut. Margotzen ari naizenean musika bakoitzak inspiratzen nau". Hor-taz, musikarien erretratuak egiteko, musika talde bat aukeratu, taldekide baten argazkia bilatu, eta taldearen abesti bat entzuten ari dela erretratu margotzen du. Hala ere, musika estilo ugari entzuten dituela esan du lakuntzarrak. Orain, hiru "fronte" ditu irekita: musikarien erretratuak, Jose Mari Lazkano Bergarako "lehen mailako margolariak" inspiratutako paisaiak eta galgoak; "txakur oso fibrosoak dira eta margotzeko politak. Gainera, asko sufritzen dute".

Pintura zaletasuna "txikitatik" du Kalek. "Anaiak margotzen zuten eta orduak pasatzen nituen berari begira. Nik ere eskolan eta etxean marrazten nuen". Marrazkia menderatu zuenean, margotzen hastea pentsatu zuen. "Orduan, akademia batzuetan eman nuen izena Iruñean eta Altsasun egon nintzen ere". Bertan ikusi zuen "baietz", izan ere, azaldu duenez, "etxean bakarrik margotzen zaudenean gustatzen zaizu, baina norbaitek ildo batzuk markatzen dizunean eta ikusten



Jokin Kale berak margotutako koadroekin. UTZITAKOIA

"ANTONIO LOPEZEKIN IKASTAROAK EGITEA OSO HANDIA DA, NIRE ERREFERENTE BAT DA"

duzunean hobetzen ari zarela, zaletasunak lotzen zaitu. Ezin zara gelditu". "Buruan" beti margotzeko "zerbait" duela esan du.

Erretratuak egitea "zailena" dela esan du artistak. "Aurpegi baten espresio guztiak hartzea eta antza izatea zaila da". Horregatik, hainbeste "denbora eta sufrimendua" ez duenean pasa nahi "lasaitzeko" paisaiak egiten ditu. "Zuhaitz bat falta bada ere, ez da nabaritzen". Paisaiak margotzea "tonuekin jolastea" dela esan du.

Kale Txiki tabernan dagoeneko dagoen erakusketa tabernara egokitu du Kalek, beraz, zazpi erretratu erakutsi ditu. "Hiru erretratu pastelean margotuta daude, klarion antzeko bat da eta behatzekin margotzen da". Beste lau handiagoak dira eta oleoan margotuta daude. Etorkizun laburrean Iruñeko bi tabernatan erakusketa jartzea

aurreikusten du. "Galeria batera joaten zara eta ez bazara honetaz bizi, ez dizute kasurik egiten". Horregatik, haren lanak erakusteko aukera ematen dioten lekuetan "pozik" jartzen ditu Kalek.

Maisuarekin ikasten

Antonio Lopez pinturaren "maisuhandian" urtero ikastaro bat egiten du Iruñean. Kurtsoan parte hartzeko eskaera egin behar dute margolariak, eta gero aukeratutako izan behar dute. Kalek lehenengo eskaera egin zuenetik parte hartu du ikastaroan. "Benetako luxua da. Erreferente bat da eta urtero aukeratu izatea oso handia da". Ikastaroan hamabost margolarik parte hartzen dute, eta aste batean "goiz eta arratsalde" margotzen pasatzen dute. "Urte asko zerman ikastaroa egiten nik jakin nuenean, eta duela bost urte edo hasi ginen.

Aukeratu izan ondoren, gainera, bi urtez Lopezek bere lanak aukeratu ditu bukaeran egiten duten erakusketan jartzeko. Ondoren, lan horiek Nafarroako Museoa uzten dituzte. "Pentsa zer den hori".

Abesbatzak handitzeko ahots berrien bila

Momentu "on" batean egon arren, Etxarri Aranazko eta Erkudengo Ama abesbatzak kide berrien bila dabilta. Baxuak eta tenoreak, hurrenez hurren, behar dituzte, baina abestea gustatzen zaion "edonor" ongi etorria izango dela esan dute

ETXARRI ARANAZ / ALTSASU

"Abesbatza batean musikarekin harremanetan jartzen gara, eta denok dakigu musikak onura izugarriak dituela". Bai osasunean bai bizitzaren arlo guztietan onurak dituela dio Puri Altzelai Altsasuko Erkudengo Ama abesbatzako kideak. Maria Goikoetxea Etxarri Aranazko Abesbatza kideak "erdi txantxetan" abesbatzan aritzea "terapeutikoa" dela esaten dutela adierazi du. Abesbatza bateko kidea izateak, beraz, onurak baino ez ditu ekartzen. Bi abesbatzek etorkizuneko proiektuak dituzte, baina ahots berriak behar dituzte ere, bereziki, gizonezkoen ahotsak. Hala ere, "abestea gustatzen zaion jendea" ongi etorria izango da bi abesbatzetan.

Abesbatzak, edozein talde handi bezala, dinamikoak dira. Horregatik, batzuetan jende beharra dute. "Beti ahots berriak ongi etorriak dira", esan dute Etxarri Aranazko Abesbatzatik. Gizonak abesbatzan parte hartzeko "lotsatiagoak" izaten direla gaineratu du Goikoetxeak: "txikitatik ikusten dugu. Koru txikian neska askoz gehiago dago, eta hauek abesbatzara pasatzen joaten dira. Baina mutiko gutxi iristen zaizkigu". Ahots baxuen bila ari dira, gehien bat, Etxarriko abesbatzan. Erkudengo Aman tenoreak behar dituzte azaldu du Altzelaiak. "Batzuetan emanaldietan edozein arrazoigatik gizon batzuek huts egiten badute, ahotsetan desoreka sortzen da eta arazo bat da". Hala ere, "ahotsen kopurua handitu" behar dutela esan du Altsasuko abesbatzako kideak.

Kantatzea gustatzea da abesbatzako kideek aipatzen duten baldintza garrantzitsua. Altzelai: "Musika maite dutenak, ongi pasatzeko gogoak dituztenak, elkarrekin eta giro ederrean proiektu polit bat sortu nahi dutenak". Antzeko baldintzak



Etxarri Aranazko abesbatza NAK 2018 jaialdian. UTZITAKOIA

TALDE "DINAMIKOAK" IZANIK, KIDE BERRIAK BEHAR DITUZTE ABESBATZEK, GIZONAK, GEHIEN BAT

aipatzen ditu Goikoetxeak: "Abestea gustatzen zaion jendearen bila gabiltza. Taldean lan asko egiten ongi pasatu nahi duenaren bila".

Abesbatzako kidea izateko ez da beharrezkoa aurretik musika ikasketak izatea. "Solfeoa, aurretik beste nonbait abestu izana edota instrumentuak jotzea beti lagungarria da, baina ez da derrigorrezkoa", aipatu du Goikoetxeak. Jarrera eta konpromisoa eskatzen dute Etxarriko abesbatzatik. "Belarria" izatearekin nahikoa dela dio Altzelaiak. "Ez da ezinbestekoa izugarriko ahotsa izatea, ahots guztiak uztartuz sortzen delako emaitza". "Zerotik" hasi daitekeela dio ere Altsasuko abesbatzako kideak.

Altzelaiak azaldu duenez, ahots bakoitzak "tesitura" bat dauka, eta eskala ariketa erraza batzuek egiten jakin dezakete bakoitza-

ren ahotsa zein taldetan banatu. Hortaz, Etxarri Aranazko Abesbatzan sartu aurretik "ahots froga txiki bat" egiten zaie: "Horrekin informazioa jasotzen dugu eta gure lekuan sailkatzen gaituzte: soprano edo kontraltu emakumeak, eta tenore edo baxuak gizonezkoak". Erkudengo Ama abesbatzako kideek ikastaroak egiten dituzte.

Proiektu berriak

Bi abesbatzako erreperitorioak zabalak eta askotarikoak dira. "Jendeak abesbatza hitza entzuten duenean erlijio musika-rekin lotura egiten du. Baina ez da horrela". Etxarri Aranazko abesbatzak aurten 50 urteurrena ospatuko du, eta "buru belarri" ari dira urrezko ezteiak prestatzen. Baluartan Nafarroako orkestrarekin ariko dira, lehiaketaren batera joango dira eta bidaiaren bat prestatuko dutela azaldu du Goikoetxeak. Erkudengo Ama Abesbatza ere bidaiak egiteko ohitura du. Elkartrukeak egiten ditu hainbat abesbatzekin. Etorkizun hurbilean udaberriko kontzertua dute. Aurten kantautoreen musikari eskainiko diote.



BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Brexit eta gimnasia

Kurtso hasieran ez nekien zer egin, ikasturte osoa aurrean neukan eta hamaika mila proiektu metatzen zitzaizkidan nire burmuin ameslarian. Buridanen astoaren antzera ez nekien zein aldetara jo, aukera guztiak erakargarriak zirelako. Baina, azkenean, Jangoikoaren manamenduen antzera bitan laburbildu ziren aukera horiek guztiak: edo gimnasia joatea edo ingelesa ikastea. Biak ala biak aukera onak ziren, XX. mendeko auto klasikoen bilduma faszikuluetan egitea baino askoz ere hobekia. Hala eta guztiz ere, azkenean ez nuen ezer ere egin, gauzak lasaiago pentsatu behar zirela erabaki nuen eta.

Orain, berriz, otsaileko azterketak pasa direlarik eta ikasturtearen bigarren seihilekoa estreinatuta gabe dagoelarik, zirt edo zart egiteko unea iritsi dela ulertu dut. Badakizue, gauzak geroko uzteak kalte handiak dakartzela, Axularren esana da (eta berea baino gehiago, Ecclesiastesena): "Ne tardes converti ad Dominum, et ne differas de die in diem". Gainera, gauzak gehiago

atzeratuz gero, berriz ere irailan aurkitu ahal dugu geure burua, kurtso berri baten atarian eta, oraindik ere, betiko zalantzekin... Beraz... "Hordago handira!" Bietan apuntatu naiz: gimnasioan eta ingeles klaseetan. Ordaindu dut batean eta bestean, baina oraindik ez naiz ez batera eta ez bestera joan, motibazioa guztiz galdu baitut.

Espero dut zuek nire egoera ulertzea: joan den astean hastekoa nintzen ingeles klasean, baina izugarriko disgustua eraman nuen BREXIT-arekin. Ez nuen uste inoiz ere gauzatuko zenik. Zertarako ingelesa ikasi ingelesik ez badago? Europako zein herrialdek du ingelesa ofizialtzat Britainia Handiaz landa? Gogora dezagun Irlandak gaelikoa hautatu zuela hizkuntza ofizialtzat Europako Parlamentuan eta hori bera dela Ipar Irlandan eta Eskozian solastu eta sustatzen dutena. Gurean, gainera, EHXIT-a ez dago modan, Espainiako epaitegiak justuak ez diren bitartean Europakoak ditugu berme bakarra. Eta motibaziorik gabe, aldapaz gora egiten zait gimnasia joatea.



IORTIA KULTUR GUNEAN

Oreka TX-en dantzariak

Oreka TX taldeak Koklea diskoa aurkeztu zuen aurreko larunbatean Altsasuko lortia kultur gunean. Taldearekin dantzan aritu ziren Etorkizuna Dantza Taldeko eta Irantzu Gonzalez Azpiroz dantza eskolako dantzariak. Bi taldeak elkarrekin aritu ziren Oreka TX-ekin Aske kontzertuan, eta musika taldeak esperientzia aurkezpenean errepikatu nahi izan zuen.



Alicia Torrea piano jolea. UTZITAKOIA

"Alemanian musikariekiko beste errespetu bat dago"

ALICIA TORREA PIANO JOLEA

Lizarragatik mundura pianoa jotzen. Goi mailako musika ikasketak eta musikaren pedagogia ikasi du Alicia Toreak Europako unibertsitateetan

Erkuden Ruiz Barroso LIZARRAGA

Aita bateria jolea izanik, musika Alicia Torrearen elementu garrantzitsua izan da. Etxean "betidanik" musika entzuten zuen eta musika ikasketak hasi zituenean, "jolas" bat bezala zen Torrearendako. Karrera egin zuen ondoren.

Zergatik aukeratu zenuen pianoa?

Nire aita musikaria da, bateria jolea. Ni alaba naiz eta berak hasieratik nahi zuen seme-alabak bazituen musika ikas zezaten. Barañainen bizi ginen eta

1990ko hamarkadan musika eskolarekin boom bat izan zen eta izena eman zuten. Baina txikia nintzenez ez nintzen haur horiek bezalakoa esaten dutela hasieratik instrumentu zehatz bat jo nahi dutela. Pianoa

"PIANOA ZEGOEN AUKERATZEKO, ETA PIANO AUKERATU NUEN; AURRETIK EZ NUEN GOGOKORIK"

zegoen aukeratzeko eta pianoa aukeratu nuen.

Eta gustatu zitzaizun.

Hori ziur. Ez dut oso ondo gogoratzen, baina irakasle oso onak izan ditut hasieratik. Aita nirekin etortzen zen musika eskolara. Arratsaldero pianoarekin egoten ginen. Jolasa bat bezala zen. Gainera, nik etxean beti musika entzun dut.

Instrumenturen bat gehiago jotzen duzu?

Bai. Biolontxelo, unibertsitatean bateria jotzen hasi nintzen, txar-

laparta pixka bat egin nuen, gitarra, ukelelea... denetarik pixka bat. Baina nik uste musikari guztiok egiten dugula. Batekin hasten zara, gero bestearekin eta ez da instrumentuaren karrera egiteko, baina jotzen duzu.

Esaten dutenez piano jolea bazara, beste edozein instrumentua jotzeko erraztasuna duzula. Egia da?

Orokorren instrumentu guztiak gertatzen dela uste dut. Kontuan izan behar da pianoa instrumentu harmonikoa dela. Ez duzu melodia jotzen bakarrik, txirularekin bezala, esaterako, instrumentu melodikoak direla. Baina orokorrean izaten da. Lengoia unibertsala bat dago eta musika nondik nora joaten den ezagutzen baduzu, bakarrik da ikastea instrumentu bakoitza jotzen. Bueno, bakarrik hitz egiteko modu bat da. Instrumentua jotzeko mekanika ezagutzen duzunean errazagoa da.

Nola erabaki zenuen musikako goi mailako ikasketak egitea?

Goi mailako ikasketak Pablo Sarasate kontserbatorioan egin nituen. Beraz, 19 urterekin bukatu nuen eta garai horretan Baionan piano klaseak ematen nituen Madame Durekin, piano irakasle oso ona. Berarekin egon ginen larunbatero. 2002an Iruñean ikasketak amaitu nituen, eta Frantzia probaren bat egiteko animatu ninduten, eta hartu ninduten. Boulogne Billancourt-en egon nintzen, Parisen. Piano ikasten eta perfekzioa ikasketak egin nituen. Ondoren, probak egiten hasi nintzen eta Berlinera joan nahi nuela erabaki nuen. Pedagogia irakasle oso ona ezagutu nuen. Beraz, alemaniarra ikasten hasi nintzen eta Leipzigen erasmus egiteko aukera sortu zen, eta joan nintzen. Nire helburua Berlinen pedagogia ikastea zen. Buru-belarri jarri nintzen eta azkenean lortu nuen plaza.

Pedagogia?

Musikaren pedagogia. Berlin mendebaldean badago arteen unibertsitatea eta musika, antzerkia, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak... daude. Bertan

"BERLINGO UNIBERTSITATEAN SARTZEA LORPEN HANDIA IZAN ZEN, OSO ZAILA ZEN"

musikaren pedagogia ikasi nuen, bereziki pianorako.

Oso ikasketa berezituak.

Bai oso. Sartzeko proba oso zaila zen eta sartu nintzenez lorpen handia izan zen. Hiru aldiz saiatu nintzen, eta hirugarrenean hartu ninduten. Pianorako bakarra nintzen. Bakarrik 10 plaza zeuden eta bat pianorako. Gero karrera ez zen oso zaila izan. Berlinen ikasten eta lanean aritu nintzen eta hortik Boliviara joan nintzen eta bertan beste proiektu bat egin nuen. Istoria pila daude, adibidez, ikasle batek oso gutxi ikasten zuen eta musika braille sisteman irakatsi genion. Bertan geratu da eta proiektuarekin jarraitu du.

Uste duzu Erropan garrantzia gehiago ematen zaiola arteari orokorrean?

Alemanian bereziki musika oso garrantzitsua da. Alemanian musikaria naizela esaten dudanean, beste modu batera begiratu zaituzte. Aldiz, hemen esaten dizute zein polita den pianoa jotzea. Eta, ez, horren atzean orduak eta orduak daude. Bestela, galdetzen didate zer gehiago ikasi dudanez. Nola zer gehiago ikasi dudanez? Ez dut ezer gehiago ikasteko denborarik! Alemanian alderantziz da: musikaria zara, zeinen ongi, ze zaila. Beste errespetu bat da. Baina, bueno, leku guztietan denetarik aurkitzen duzu.

Irakaslea zara orain.

Orain Barakaldoko kontserbatorioan nago. Nafarroan lan eskaintza nahiko berezia da, hezkuntzan orokorrean eta musikan ere. Gainera, horrela ikusi dezaket zer mugitzen den. Bilbo oso handia da eta jende asko dago eta beste maila bat dago. Hiru ikasle ditut oso ongi jotzen dutenak eta musikariak izan nahi dutenak. Iruñean ere badago, baina Iruñean ez nituen piano klaseak ematen. Antsoainen klaseak ematen jarraitzen dut, eta sorpresa oso politikak izan ditut ere.

Zer nolako musika jotzea gustatzen zaizu?

Ongi egina dagoen edozein musika gustatzen zait. Entzuteko, dantzatzeko eta jotzeko. Pianoarekin klasikoa, erromantikoa, inpresionista eta abar ikasi dut gehiago. Oso polita izan zen NAK jaialdian Miren Karmele Gomezekin egin genuen kontzertua: berak marrazten zuen nik jotzen nuen bitartean. Etxarri Aranazko Abesbatzarekin ere 2018an NAKen aritu nintzen.



Maider Ansa eta Hasier Gonzalez Egunean Behin jokoaren erabiltzaileak.

"Egunean Behin jokoan lehiakortasuna sanoa da"

Egunean Behin aplikazioaren hirugarren denboraldia hasi zen astelehenean. Martxoaren 28ra arte egonen da martxan. Dagoeneko 60.000 erabiltzaile baino gehiago ditu. Maider Ansa eta Hasier Gonzalez lehenengo denboraldian sartu ziren

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI
ARANATZ / ALTSASU

1 Zer da Egunean Behin?

Hasier: Telefono mugikorren aplikazio bat da, joko bat. Izenak dioen bezala egunean behin hamar galdera erantzun behar dira.

Maider: Kultura orokorreko hamar galdera egiten dizkizun

aplikazio bat da. Taldeak sor ditzakezu eta zure inguruko lagunekin pike bat sortu; ea nork lortzen dituen puntu gehiago.

2 Nola ezagutu zenuen joko hau edota zergatik sartu zinen?

H. Egin esan, kuadrillako batekin esan zidan aste horretako Egunean Behin-eko irabazlea nire anaia izan zela, eta esan nion: "zer da

hori?". Sartu nintzen eta nire anaia zen. Hasi nintzen ni ere.

M. Ez naiz gogoratzen. Baina bai nire kuadrillan horrelako txorakeriekin asko pikatzen garela. Joko bat atera zela eta talde bat egiteko proposatu zuten.

3 Noiz hasi zinen?

H. Pasa den urteko udaberrian. Lehenengo denboraldian.

M. Lehenengo denboraldian.

4 10 galdera erantzun behar dira. Zer nolako galderak dira?

H. Oso desberdinak. Euskal Herriko lekuak, geografia, argazkiak, mapak, ohituren ingurukoak, matematika eta logika, hemengo zein munduko pertsonaia ospetsuak, haien adinak... azken hauek zailak izaten dira. **M.** Ariketa matematikoak, euskal kulturako jende ezagunari buruzkoak, kantuen ingurukoak kantuen letrak osatu behar, herrialdetako banderak, Euskal Herriko herrietako argazkiak herria identifikatzeko, zenbake-ta azkarrak...

5 Denbora mugagabea da?

H. Ahalik eta galdera gehien erantzun behar dira, ahalik eta denbora gutxienean.

6 Saikapen orokor bat dago, zein izan da zure posturik hobereena?

H. Pasa den urtean hamaseigarrena gelditu nintzen. Abenduan. Gainera, beste Altsasuko batekin egoten nintzen komentatzen ni seigarrena nengolako eta bera hamargarrena. Azkenean bera gelditu zen nire aurretik. Noizbait egon naiz lehenengo postuan baina egun batez.

M. Egun batean badakit bigarrena egon nintzela unetxo batez. Gero jende guztiak egin zuen eguneko jokaldia eta jaitsi nintzen. Hori izan da nire marka.

7 Sariak egoten dira. Lehiakortasuna dago?

H. Jakina baietz. Jokatzeko den guttira, irabaztea nahi dugu, ez? Saria ez dugu irabaziko, baina gure taldetxoaren lehenengoak bagara, behintzat poztzen gara.

M. Sanoa, baina badago.

8 Zenbat taldetan zaude?

H. Lau taldetan. Azkena Guai-xek sortu duen Sakana talde horretan sartu naiz. Gainera, euskal udalekuetako Abaigarko jendearekin taldetxo bat egin dugu, Gazte Asanbladan ere eta kuadrillan.

M. Ikastolako langileena, kuadrillakoa, lehengusu-lehengusina eta Arano, nire herriko, taldean. Aste honetan ere Sakana taldean sartu naiz.

9 Zure ustez, zeintzuk dira galdera zailenak?

H. Niri gehien kostatzen zaizkidanak ariketa matematikakoak dira. Normalean erantzun bati ematen diot eta listo.

M. Adinak asmatzeko galderak. Oso txarra naiz adinak kalkulatzeko, eta beti hanka sartzen dut.

10 Nola hartu duzu denboraldi berria?

H. Gogoekin. Astelehen goizean bertan egin nuen lehendabizikoa eta nahiko gaizki aritu nintzen. **M.** Kuadrillako taldean igandean komentatu genuen denboraldia berriz hasiko dela eta jende gehiago animatzeko.

11 Erabiltzaile berriei, zein aholku emango zenieke?

H. Egunean momentu egokia bilatzeko. Jende askok egiten du gauean, beste batzuk goizean esnatu bezain pronto... hori ez da oso ideia ona. Nik normalean bazkalostean egiten dut. Eta ez desanimatzeko; dibertigarria da. **M.** Goiz-goizean, jaiki bezain pronto, ez egiteko. Momentua bilatu behar da. Nik normalean eguerdian egiten dut.

BAZKIDE SARITUAK

- Nerea Villaroel Karasatorre (Lakuntza)
- Muxi Mariñelarena Imaz (Arbizu)
- M^a Paz Barandiaran (Altsasu)
- Nora Unceta Zaballa (Altsasu)

OTSAILEKO SARIAK:

1. SARIA:
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZZEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZZEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

CAMPING
ARTAZA

Ekain berri

Kai



lacturale